

Alejandra Boni eta Estela López

PLANIFIKATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK HERRITARTASUN GLOBALERAKO PRAKTIKAK



OXFAM Intermón

red
xatxa
redes
sarea

educadores
y educadoras
para una ciudadanía global

EDUKIA

SARRERA	4
----------------	----------

I. KAPITULUA

ORIENTAZIO-IRIZPIDEEN SISTEMA ZER DEN ETA ETA ZERTARAKO BALIO DUEN	6
---	----------

1. OINARRI-MAILA: Zer balio ditugu oinarri?	9
---	---

2. EMAITZEN MAILA: Zer aldatu nahi dugu?	11
--	----

2.1 Atributu kognitiboak	12
--------------------------	----

2.2 Gaitasun-atributuak	14
-------------------------	----

2.3 Jarrera-atributuak	15
------------------------	----

3. PROZESUEN MAILA: Zeri buruz eta nola hezten dugu HGHan?	17
--	----

3.1. Edukiak edo gaiak	17
------------------------	----

3.2. Praktikak eta metodologiak	17
---------------------------------	----

4. EGITURA-MAILA: Zer laguntza, baliabide edo oztopo ditut?	23
---	----

5. TESTUINGURU-MAILA: Zer kanpo-faktorek eragiten dute HGHaren jardueran?	26
---	----

II. KAPITULUA

NOLA ERABILI IRIZPIDE ORIENTATZAILEEN SISTEMA	28
--	-----------

1. Ebaluatu nahi diren atributuen arabera	30
---	----

1.1. Atributu kognitiboak	30
---------------------------	----

1.2. Gaitasun-atributuak	33
--------------------------	----

1.3. Jarrera-atributuak	34
-------------------------	----

2. Nire interes, ezagutza eta aukeren arabera	36
---	----

3. Tresnak erabili nahi diren / erabil daitezkeen unearen arabera	37
---	----

4. Honen arabera: proposamen bat diseinatzen ari naizen edo esperientzia bati buruzko hausnarketa egiten	39
--	----

III. KAPITULUA

TRESNAK	40
1. Alderdi orokorrak	42
1.1. Subjektuak	42
1.2. Prozesuaren ikuspegia	43
1.3. Zer aldaketa lortu nahi da?	43
1. tresna. Kaidarako material pedagogikoak diseinatzen laguntzeko fitxa	44
2. tresna. AMIA	45
3. tresna. Plangintza sistemikorako matrizea	46
4. tresna. Diskurtso konparatiboaren azterketa (aurreteta/testondorena)	47
5. tresna. Gaitasunei buruzko oharren egutegia (aurreteta/testondorena)	48
6. tresna. Ikasleei inkesta banatzea (aurreteta/testondorena)	49
7. tresna. Rol-jokoa (aurreteta/testondorena)	51
8. tresna. Autobehaketa edo kideen behaketa	52
9. tresna. Testuinguru-aldaketen egunkaria	61
10. tresna. HGHko zure praktikari buruzko tailerra ikasleekin	62
11. tresna. Kaidarako materialei buruzko onlineko inkesta	64
12. tresna. Zure ebaluazio sistemikoaren emaitzak eta ikasitakoak partekatzeko azken fitxa	66
12. tresna. Eranskina	69

GEHIAGO JAKITEKO

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	71
HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZIKETARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO	72

SARRERA

Oxfam Intermónek bultzatutako talde bat da **Herritartasun Global baterako Hezitzaileen Sarea**, Espainiako autonomia-erkidego bateko eta besteko hezitzaileek osatua. Gizateriarekin eta planetarekin arduratsua den herritartasun global bat eraikitzearekin konprometituta dagoen eskola bat eraikitzearen alde egiten dugu Sarean.

Uste osoa dugu irakasle-taldearen parte-hartze erabatekoa ezinbestekoa dela eskola horretarako. Helburu hori izanik, hainbat hezitzaile elkartu gara, eta trebatzen, ikertzen eta sarean sortzen ari gara, esku hartzen duten pertsonen eta erakundeen sinesmen, jarrera eta politiketan txertatzeko gure proposamenak.

Gure sarearen xede nagusia da herritartasun global bat eraikitzea, planetarekin eta gizateriarekin arduratsua izango dena, aniztasuna errespetatuko duena, partizipatiboa, giza eskubideen alde mobilizatuko dena eta justiziarekin konprometitua, bai gazteen artean, bai herritarren artean oro har, hezkuntza-arlo formaletatik eta ez-formaletatik.

Badira 20 urte baino gehiago Sareak materialak eta hezkuntza-baliabideak sortzen dituela, eta, gaur egun, erreferentea dira hezkuntza-munduan garapenerako, bai eskoletan eta irakasleen artean, bai hirugarren sektorean. Denbora askoan, proposamen didaktikoak paperean argitaratzen ziren, baina, 2010ean, **Kaidara** ekimena jarri zen abian (www.kaidara.org), Sarearen proposamen didaktikoak, esperientziak eta praktikak hedatzeko Interneteko ataria.

Kaidara martxan jartzeko, lehendik zeuden baliabide eta dokumentu guztiak berrikusi behar izan ziren, ziurtatzeko digitalizatu egingo zirela gaurkotasunekoak izaten jarraitzen zutenak eta/edo herritartasun globalerako heziketaren (HGH) eredurako proposamen didaktiko interesgarriak zituztenak Sareko irakasle-talde batek egin zuen ariketa hori. Berrikusketa bukatu zutenean, aipatutako baldintzak betetzen zituzten materialen zerrenda eman zuten, eta agerian utzi zuten beharrezkoa zela **orientazio-irizpide argi eta zehatz batzuk** izatea, proposamen batek HGHaren printzipioekin zenbateraino egiten duen bat aztertzeko balioko zutenak.

Hala, Sarean geure gain hartu genuen **hezkuntza-praktiketarako orientazio-esparru bat** sortzeko erronka, zeinak balio behar zuen, batetik, proposamen batek **HGHaren balioak eta printzipioak sustatzeko gaitasuna zuen neurtzeko**, eta, bestetik, proposamen berriak sortzeko inspirazio-esparru izateko eta **egindako praktiken eta izandako esperientziei buruzko hausnarketa kritikoa egiteko**.

HGHko hezkuntza-praktiketarako orientazio-esparrua aurkezten dugu argitalpen honetan, Alejandra Bonik,¹ Estela Lópezek² eta Herritartasun Global baterako Hezitzaileen Sareak egina. **Orientazio-irizpideen sistema batek osatzen du orientazio-esparru hori, eta sistema horrek aukera emango digu**

1 Alejandra Boni Valentziako Unibertsitate Politeknikoko irakaslea eta Garapen, Kooperazio eta Etikako Ikasketa Taldeko (UPV) ikertzailea da.

2 Estela López Garapen, Kooperazio eta Etikako Ikasketa Taldeko (UPV) ikertzailea da.

gure hezkuntza-praktika herritartasun global baterako heziketaren ikuspuntutik planifikatzeko eta ebaluatzeko.

Hiru kapitulutan banatuta dago testua. Lehenak irizpide-sistema honen logika orokorra zein den azaltzen du, eta haren osagaiak aurkezten ditu (balioak, emaitzak, metodologiak, alderdi erabakigarriak, etab.), ikuspuntu orokor eta operatibo batetik.

Bigarren kapituluak azaltzen du, modu praktikoan, zertarako balio duen irizpide-sistemak, eta ikuspuntu, behar edo aukera desberdinetatik erabiltzeko aukerak ematen ditu.

Azkenik, hirugarren kapituluan, orientazio-irizpide horiek tresna praktiko nola bilakatzen diren azaltzen da, eta aplikatzeko gomendio orokor batzuk ematen dira.

I. KAPITULUA

ORIENTAZIO-IRIZPIDEEN
SISTEMA ZER DEN ETA
ETA ZERTARAKO BALIO
DUEN



deia hau dugu abiapuntu: HGHaren helburua da eraldaketa soziala bultzatzea, pertsonak justizia- eta ekitate-baldintzetan bizi ahal izan daitezzen. Nolanahi ere, geure egiten dugu eta uste dugu gure rola dela, lehenik eta behin (baina ez hau bakarrik), **gure ikasleak eraldatzea**³ (haien jarrerak, ezagutzak eta abileziak), berak izan daitezzen eraldaketa horretako aktore nagusiak. Horregatik da hain garrantzitsua HGHaren hezkuntza-praktikak garatzen ditugun sare honetako elementu guztiak nabarmentzea.

- Garrantzitsua da nabarmentzea eta modu ikusgarrian jartzea **zer aldaketa lortu nahi ditugun gure ikasleetan (zer emaitza)**, eta gai izatea (ahal den neurrian eta konplexutasunek horretarako aukera ematen badute) baloratzeko aldaketa egiten lagundu dugun.
- Hezitzaile garen aldetik, aldaketa horiek **hezkuntza-prozesuen** bidez egitea **bultzatzen dugu**. Nagusiki, bi elementu hauek osatzen dituzte prozesu horiek: HGHarekin bat datozen **eduki** eta **metodologia** batzuk. Horixe egiten dugu guk, eta, nolabait, ikasiz joan behar dugu zer edukik eta zer metodologiak **lagunduko diguten gehiena aldaketak eragiten**.
- Dena den, hezkuntza eta eraldaketa ez dira “zientzia puruak”, ez baitira mugitzen hutsean. **Gure hezkuntza-jarduera eta lor ditzakegun emaitzak errazten edo zailtzen dituzten** (edo, besterik gabe, baldintzatzen dituzten) **hezkuntza-egitura batean** garatzen dira.
- Azkenik, gure zeregina **testuinguru soziopolitiko eta ekonomiko batean** dago, eta horrek ere eragin positiboa edo negatiboa izan dezake gure xedean.

Ikuspegi sistemiko horren alderdi interesgarrienetako bat hau da: itxuraz ikuspegi lineala izan arren (testuinguruak zehazten du egitura, eta egiturak zehazten ditu gure praktikak, eta praktikek zehazten dituzte emaitzak...), egiatan, eraginak norabide anitzekoak direla jartzen du agerian; ikasleekin lortutako emaitzek aldaketak ekar ditzakete testuinguruan (adibidez, Bigarren Hezkuntzako ikasleek eragina izan dezakete politikan) edo egituran (adibidez, ikastetxean lankidetzagiro bat sortzea), edo hezkuntza-praktika batzuek ere aldaketak eragin ditzakete egituretan (adibidez, “Mundak lotzen” ekimenak (www.conectandomundos.org) eragina izan du hezkuntza-proiektuetan, ziklo-dinamiketan eta abarretan).

3 Ikastetxeak ere eraldatu nahi dira, baina ikasleak dituzte ardatz orientazio-irizpideok.

1. KOADROA: HGH-AREN HEZKUNTA-PRAKTIKETAN PARTE HARTEN DUTEN ELEMENTUAK



1

OINARRI-MAILA: ZER BALIO DITUGU OINARRI?

Herritartasun globalerako heziketak tradizio luzea du, eta pedagogiako eta hezkuntzako teoria eta jarreretatik elikatzeaz gain, politikatik, ekonomiatik, soziologiatik eta abarretatik ere edaten du. Dena den, gizarte justuago eta solidarioago baten eredia sustatzea da bere ezaugarri nagusia; gizarte horretan, munduko biztanle guztiek sentitu behar dute gizateriak etorkizun duin bat izateko ardura dutela.

Horregatik, HGHaren esparruko hezkuntza-praktikek eta -proposamenek oinarri etiko-politiko bera izan behar dute; **balioak** deituko diogu oinarri horri. **Egiten dugun eta lortu nahi dugun guztia (zer eta zertarako)** eta erabiltzen ditugun bitartekoak (**nola**) **definitzen eta**

orientatzen dituzten ezaugarriak dira balioak.

Hain zuzen ere, HGHaren ikuspegi guztian barneratzen diren eta ikuspegi guztia elikatzen duten oinarri bat direnez, balioak ez dira aparteko azterketa-kategoria bat edo eduki eta atribuetatik isolatutako elementu bat. Gure praktikei eta proposamenei lotutako eduki, printzipio metodologiko eta espero diren emaitzen bidez adierazten dira balio horiek, eta haiekin intrintsekoki erlazionatuta daude. Hemen zerrendatuko ditugu, baina ez diegu berriro helduko gero ebaluatu beharreko berariazko elementu gisa; izan ere, zeharka ebaluatzen dira irizpide-sistema osatzen duten beste elementuen bidez.

2. KOADROA: BALIOAK

Ikuspegi politikoa

- **Hezkuntza, eginkizun publiko gisa.** Hau da, demokrazia ikasteko eta gauzatzeko gune gisa (herritartasuna, praktika gisa).
- **Hezkuntza komunitatea, aldaketa-eragile.** Aldaketa eragiteko ahalmena duten pertsonak.
- **Herritarrak, eskubideen, betebeharren eta arduren titular** (herritartasuna, estatus legal gisa).
- Justiziaren ikuspegia: **Eragin politikoaren eta gizartearen mobilizazioaren garrantzia**, pobrezia, segurtasunik eza eta desberdintasuna betikotzen dituzten arau nazionalak eta globalak **aldatzea lortzeko.**



<< 2. koadroa: Balioak

Ekosistema-ikuspegia	<ul style="list-style-type: none">• Ingurumenaren degradazioa ez da ingurumen-arazo bat bakarrik, gizarte-arazo bat ere bada. Natura babestea gure bizi-kalitatea babestea da.• “Nia suspertzea”. Gutako bakoitzak onartu behar du guztiok garela munduarentzat arazo, baina baita irtenbide ere.• Gure bizitzak sinplifikatzea eta balio ekologikoak eta giza balioak kontuan hartuz bizitzea.• Bizitzaren ikuspegi elkarren mendeko eta sistemikoa (ezaugarriok gainditzea: iparraldearen/hegoaldearen arteko desberdintasun geografikoak, ezagutza konpartimentuetan banatua, alde bakarreko norabideko ikuspegia, eta abar).
Identitate-elementua	<ul style="list-style-type: none">• Desberdintasuna onartzea eta baloratzea. Onarpenetik ikastea.• Gizakia osatzen duten identitateak onartzea (generoa, arraza, etnia, komunitatea eta abar); identitate horiek ez dira baztertzailak eta estatikoak, baizik eta barneratzaileak eta aldakorak.• Identitate kosmopolita onartzea, komunitate zabal bateko partaide garen ustean oinarrituta, eta solidaritatean eta guztion ongizatean oinarrituta.
Elementu <i>glokala</i>	<ul style="list-style-type: none">• Herritarren bizipena, tokiko mailan. Eskola inguruari irekitzea: horrek esan nahi du eskola ireki egin behar dela, eta kanpoko esperientziak sartzen utzi behar direla, eta atera, eta banakako arazoetan eta arazo sozialetan parte hartu eta lagundu behar duela.• Herritarren bizipena, maila globalean. Ikasketa-guneak sortzea, alderdi globala tokikoarekin nola konektatu ikasteko.• Irakasleek, ikasleek, familiek, tokiko komunitateek, GKEek eta beste zenbait kolektibok elkarrekin eraikitzen dute jakintza, elkarrizketaren bidez.• Hezitzaileen Sarea, gune pribilegiatua, herritartasun <i>glokala</i> eraikitzeko.
Elementu pedagogikoa	<ul style="list-style-type: none">• Herriaren hezkuntza-eredua. Kontzientziazio-hezkuntza eta hezkuntza eraldatzailea. Praktikarako orientazioa.• Kulturen onarpena eta herriaren jakintza.• Jakintza eta ikaskuntza eraikitzea, esperientzia abiapuntu hartuta.• Jakintza kolektiboki eraikitzea.

2

EMAITZEN MAILA: ZER ALDATU NAHI DUGU?

HGHak ikasleak ez ezik, ikastetxea bera eta ingurunea ere aldatu nahi ditu,⁴ baina orientazio-irizpideen sistema honek ikasleetan egin nahi diren aldaketak ditu ardatz.

Eragina izan nahi dugun horri gure ikasleen **atributuak** deituko diogu, eta hiru kategoriatan banatuko ditugu: kognitiboak, trebetasunei lotuak eta jarrereri lotuak.



ZERGATIK ATRIBUTU TERMINOA?

Orientazio-esparruko lehen definizioaren inguruan pentsatzen ari ginela, eztabaidan aritu ginen herritartasun globalaren ezaugarri "idealak" zehazteko erabili behar genuen terminoari buruz. Kompetentziei, ezaugarriei, bereizgarriei, nolakotasunei eta haiek bezain iradokitzaileak izango lirakekeen beste termino batzuk ere erabil genitzakeen.

Iruditzen zitzaigun *ezaugarri* eta *bereizgarri* deskribatzaileegiak direla; kompetentziak hautagai tinkoa zen, bai baikenekien hezitzaileen jardueratik hurbilena egon zitekeela.

Dena den, bazegoen zerbait erabat konbentzitzen ez gintuena: normalean, aditzera ematen da kompetentziarik ez duena ez dela gai zerbait egiteko, eta kompetentzia bada, berriz, badela gai. Horrenbestez, iruditu zitzaigun *kompetentzia* hitzak ikuspegi instrumental samarra zuela, eta konnotazio negatibo samarrak izan zitzaizkeela.

Hala, *atributu* terminora iritsi ginen, zeinari ez baitiogu traza instrumentalik hartzen. Hitz hori ez da hain erabilia (horrek ez du zertan zailtasuna izan, ordea), eta konnotaziorik ez du, eta *ezaugarri* eta *bereizgarri* baino sendoagoa iruditzen zitzaigun.

Gure ustearen arabera, **herritar globalen idealaren ezagutzak, trebetasunak eta balioak dira atributuak.**

Jarraian, atributu horien zerrenda zehatz bat aurkezten dugu, eta eraginkor bihurtzeko jarraibide (edo adierazle) batzuk ematen ditugu. Nolanahi ere, kontu oso garrantzitsu bat aipatu nahiko genuke: jakin behar dugu atributu horiek guztiak beti ez ditugula

batera landuko. Hain zuzen ere, irizpide-sistema honek funtzionatzeko aurrebaldintza bat da **landu ditugun edo landuko ditugun atributuak zerrendatik aukeratzea**, gure azterketa ardazteko.

⁴ Centros educativos transformadores: ciudadanía global y transformación social (www.kaidara.org/es/centros-educativos-transformadores).

2.1. ATRIBUTU KOGNITIBOAK

3. KOADROA: ATRIBUTU KOGNITIBOAK

Atributua	Atributua eraginkor bihurtzea (ikasleak...)
JUSTIZIA ETA EKITATEA ZER DIREN ULERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte baten barruko eta gizarteen arteko desberdintasunak eta injustiziak zein diren ulertzea Gizakien oinarritzko beharrak zein diren jakitea Giza eskubideen eta eskubideak urratzen diren egoeren berri izatea
KIDEEEN MUNDU-KOMUNITATE BATEN ESANAHI ETIKOA ULERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Justizia eta ekitatea sostengatzen duten eta giza duintasuna aintzatesten duten argudio etikoen berri izatea Herritar global gisa ditugun erantzukizunen berri izatea HGHarekin bat datozen aldaketak egiteko politiken proposamenen berri izatea
ANIZTASUNA ULERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Pertsonen identitatea eraikitzeko moduaren ikuspegi analitiko bat izatea Aniztasuna aberastasun gisa ikustea, identitate inklusiboen ikuspuntu batetik Edozein aniztasun-motarekiko aurreiritzien kontzientzia hartzea Aniztasun-mota desberdinekiko dauden estereotipoak suntsitzeko nola jokatu jakitea
ELKARRERAGIN EKONOMIKO, SOZIAL, POLITIKO, KULTURAL ETA INGURUMENEKOAK ULERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Lehendik dagoen garapen-eredua, haren oinarri den paradigma neoliberal eta eredu horren ondorioak ulertzea Garapen-eredu alternatiboak daudela jakitea eta haien arrazoibide eta ondorioak ulertzea Gertaera politiko-ekonomiko jakin batzuk ulertzea (bereziki gaur egungo krisi sistemikoari lotuak), eta pertsona, gizarte, ingurumen, kultura eta abarretan dituen ondorioen berri izatea. Iparraldearen eta Hegoaldearen botere-desberdintasun historikoak ulertzea: harremanak, trukaturako baliabide motak, etab. Ondorio globalak eta tokiko portaerak lotzeko gaitasuna
ALDAKETA SOZIALA ULERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> Aldaketa sozialaren eta barruko subjektuaren paperaren ezagutza historikoa Historian izandako aldaketa pertsonal eta kolektiborako gaitasuna ulertzea



<< 3. koadroa: Atributu kognitiboak

Atributua	Atributua eraginkor bihurtzea (ikasleak...)
<p>HERRITARREN PARTE-HARTZEAN OINARRITUTAKO BOTEREA ULERTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Botere-posizio desberdinak daudela jakitea, eta haien arteko tartearen berri izatea • Botere-posizio desorekatu horiei eusteko zer mekanismo erabiltzen diren aztertzeke gai izatea • Jakitea botere-desorekako egoera hori nola alda daitekeen herritarrek parte hartzeke dauden kanalak erabiliz eta parte hartzeke eremu berriak sortzea eta kontu publikoak ematea aldarrikatuz
<p>GENERO-DESBERDINTASUNEN INGURUKO KONTZIENTZIA HARTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusgai jartzea kultura bateko eta besteko istema patriarkaleko botere-harremanak eta, horren ondorioz, genero-aldeak daudela • Gai izatea genero-identitatearen azterketa bat egiteko, egunerokoan izaten diren genero-desberdintasunen bizipen eta adibideak abiapuntu izanik • Harreman ekitatiboagoak eraikitzeke jarraibideak izatea
<p>BIZITZARAKO ADIMEN EMOZIONALAREN BEHARRA ULERTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adimen emozionalaren garrantzia eta zertan datzan ulertzea • Hura garatzeko eta gauzatzeko jarraibideak
<p>GATAZKEN KUDEAKETARI BURUZKO EZAGUTZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazken arrazoiak eta izaera ulertzea • Gatazkek kudeatzeko tresnei eta bitartekotza-tresnei eta -teknikei buruzko ezagutzak

2.2 GAITASUN-ATRIBUTUAK

4. KOADROA: GAITASUN-ATRIBUTUAK

Atributua	Atributua eraginkor bihurtzea <i>(ikasleek...)</i>
HAUSNARTZEKO, IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUTEKO GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz egiteko txandak errespetatzen dituzte. • Aktiboki entzuten diete ikaskideei, eta horrek bide ematen diete besteen iritziak ezeztatzeko edo haien inguruan argudiatzeko. • Argudiatu egiten dute beren jarrerak ikusarazteko. • Hasierako jarrerak aberasten dituzte gainerakoek esandakoarekin. • Ez diete garrasi egiten beste batzuei, ez eta aipua kentzen ere, bai baitakite badela berea ez bezalako jarrera duen jendea.
NEGOZIATZEKO ETA KONPROMISOAK LORTZEKO GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dira saiatzen beren interes edo jarrerak gainontzekoenen gainetik jartzen. Izan ere, badakite garrantzitsua dela adostasuna lortzen saiatzea. • Jarrera desberdinen arteko tarteko akordioak proposatzen dituzte. • Erabat gogobetetzen ez dituzten akordioak onartzen dituzte. Izan ere, badakite amore eman behar dutela taldearen ongizatearen alde. • Elkarrekin zehazten dituzte adostutakoari lotuta hartutako konpromisoak.
BESTEekin KOMUNIKATZEKO ETA LANKIDETZAN ARITZEKO GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Gai dira beren motibazio, jarrera eta interesak argudiatuz jakinarazteko. • Gai dira entzule-mota desberdinekin komunikatzeko kanal eraginkorrenak bilatzeko.
BESTE PERTSONA BATZUEI ERAGITEKO ETA LIDERGO PARTEKATUAN ARITZEKO GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Gai dira beren helburuak gauzatzeko behar dituzten baliabide eta laguntzak identifikatzeko. • Gai dira beren helburuak eraginkortasunez egiteko aliantzak bilatzeko.
GUZION ONERAKO PROIEKTUAK IMAJINATZEKO ETA EGITEKO GAITASUNA (BEREN PAREKOEN TALDEAN, IKASTETXEAN, HURBILEKO INGURUAN ETA ABARRETAN)	<ul style="list-style-type: none"> • Gai dira ekintza-egoera desberdinetan duten aldatzeko gaitasuna irudikatzeko. • Gai dira jarduteko dituzten aukerak aztertzeko eta beren helburuak lortzeko aukera bideragarriena modu arrazoitu eta demokratikoan aukeratzeko. • Aldatzeko gaitasunarekiko koherenteak eta arrazoizkoak diren ekintzak proposatzen dituzte. • Beste batzuen egoera edo jarrera kaltetu edo okertu lezaketen interesik ez dute. • Unibertsalismo-balioetan oinarrituak daude haien helburuak: berdintasuna, munduko bakea eta justizia globala.

2.3 JARRERA-ATRIBUTUAK

5. KOADROA: JARRERA-ATRIBUTUAK

Atributua	Atributua eraginkor bihurtzea (<i>ikasleek...</i>)
KONTZIENTZIA KRITIKOA, IKERKETA- JARRERA ETA JARRERA EZ-KONFORMISTA	<ul style="list-style-type: none"> • Interesa erakusten dute ikasgelan landutako gaien inguruan, edo haien kausa eta ondorioei buruz galdetzen dute, azalpenen hutsuneak betetzeko edo sortzen diren desadostasunak konpontzeko. • Adibideak jartzen dituzte, galderak egin eta argumentatu, eta ikasgelan lantzen dituzten gaiak beren errealitate, esperientzia eta hurbileko bizipenekin lotzen dituzte. • Gogoan dute ikasgelan lantzen diren problematika edo fenomenoen bilakaera historikoa, eta logika horretatik abiatuta argudiatzen eta galdetzen dute.
DESBERDINTASUNEKIN BIZITZEKO ETA GATAZKAK INDARKERIARIK GABE KONPONTZEKO NAHIA	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunezko diskurtsoa eta jarrera dituzte, integrazioaren aldekoak (alde batera uzten dituzte planteamendu sexistak, arrazakeriakoak, homofoboak, etab.). • Hitz egiteko txandak errespetatzen dituzte. • Ez diete garrasi egiten beste batzuei, ez eta aipua kentzen ere, berea ez bezalako jarrera izateagatik. • Ez dira saiatzen beren interes edo jarrerak gainontzekoenen gainetik jartzen. Izan ere, badakite garrantzitsua dela adostasuna lortzen saiatzea. • Jarrera desberdinen arteko tarteko akordioak proposatzen dituzte. • Erabat gogobetetzen ez dituzten akordioak onartzen dituzte. Izan ere, badakite amore eman behar dutela taldearen ongizatearen alde.
JUSTIZIA SOZIALAREKIKO ETA EKITATEAREKIKO KONPROMISOA	<ul style="list-style-type: none"> • Pobreziaren ikuspegi ez-estereotipatua dute, justizia sozialean eta balio unibertsalistetan oinarritua, eta alde batera uzten dituzte Agindu Moralaren esparru sakonera jotzen duten planteamendu asistentzialistak.⁵ • Gai globalei buruzko galderak egiten dituzte, eta haiekiko interesa eta kezka agertzen dute. Halaber, gai dira globala denaren eta haren errealitatearen arteko kausa eta ondorioen arteko logika identifikatzeko. • Herralde pobreak egotea eragiten duten egiturazko kausei buruzko galderak eta planteamenduak egiten dituzte, eta kausa koiunturalekin lotzen dituzte. • Prestutasuna dute, eta mundu justuago baten alde lan egiteko ekintza-bideak urratzen saiatzen dira. >>

5 Agindu Moralak dio giza izaera morala dela, eta gizatasunaren hierarkiak ere, hedaduraz, moralak direla. "Finding Frames: New ways to engage the UK public in global poverty" (<http://www.kaidara.org/es/buscando-marcos>)

<< 5. koadroa: Jarrera-atributuak

Atributua	Atributua eraginkor bihurtzea <i>(ikasleek...)</i>
<p>INGURUMENA ETA HAREN BARRUKO BIZITZA ERRESPETATZEA ETA AINTZATESTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen dituzte gaur egungo garapen-paradigma eta hark ingurumenean dituen ondorioak —bai orokorrak, bai hurbilenekoak—. • Ingurumenarekiko errespetuzko jarrerak dituzte: birziklatu egiten dute, iturria itxi, argia itzali, etab.
<p>ENPATIA ETA GIZATASUN KOMUN BATEKIKO ZENTZUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Identitate inklusiboan multzotzat hartzen dute beren identitatea, ez identitate baztertzailatzat, eta, hala, gai dira puntu komunak aurkitzeko eta nabarmentzeko, desberdintasunei protagonismoa eman gabe. • Laguntasun eta/edo adiskidetasun-harremanak dituzte beste kultura, arraza, erlijio eta abarretako ikaskideekin. • Ez dute parte hartzen ikaskideren bat baztertzeko jarreretan, arrazoia edozein dela ere. • Hunkitu egiten dira giza eskubideak urratzen badira, munduko edozein tokitan urratzen direla ere, eta urraketa jasaten duen taldea edozein dela ere.
<p>ERAGINKORTASUNA ETA BESTEEN BIZITZAN ERAGIN DAITEKEELAKO USTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eraldaketa sozialera bideratutako herritarrek parte hartzeko leku batzuk ezagutzen, ulertzen eta balioesten dituzte. • Hitzez adierazten dute uste osoa dutela berdintasun handiagoko mundu justuago bat eraiki daitekeela. • Parte hartzeko guneetan nahasten dira, ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean, gauzak aldatzeko.
<p>IDENTITATEA ETA AUTOESTIMUA: NORK BERE BALIOAREN ETA BANAKOTASUNAREN SENTIMENDUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irmo erakusten dute gai direla beren errealitatean aldaketak eragiteko. Banaka eragiteko gaitasuna aldarrikatzen dute; adibidez, ingurumena zaintzeari eta arduraz kontsumitzeari lotuta. • Lidergo partekatu baten bidez jarduten dute. Izan ere, uste dute beren parte-hartzeak eta ikaskideenak ezartzen duela diferentzia, eta horrek erantzunkide izatera eramaten dituzte.

3

PROZESUEN MAILA: ZERI BURUZ ETA NOLA HEZTEN DUGU HGH-AN?

Lehen azaldu dugun bezala, sistemaren zati honek bi azpiatal ditu:

3.1. EDUKIAK EDO GAIAK

Aurkezten dugun zerrenda inspiratzaile hutsa da; beraz, ez dugu eman gaien, azpigaien eta abarren zerrenda xehatu bat, baizik eta oinarritzko izenburuak baino ez. Jotzen da gaiak berak edukiak izan daitezkeela gehienetan, baina zeharka curriculumean eta HGHaren prozesuetan ere sar daitezke / sartu behar dira, hezkuntza-etapa bakoitzean.

- Ekitatea (identitate inklusiboak eta generoa barne) eta giza eskubideak.
- Herritarren parte-hartzea
- Globalaren eta tokikoaren arteko harremana
- Garapen-ereduak (ekologia, ekonomia, politika, etab.)
- Historikotasuna eta eraldaketa: pertsonen papera
- Gatazken kudeaketa
- Adimen emozionala

3.2. PRAKTIKAK ETA METODOLOGIAK

HGHa ez da sortu hutsetik, eta haren helburua ere ez da hutsetik garatzea; beste korrante eta ikuspegi metodologikoen alderdirik onenak aprobetxatu nahi ditu, eta bere oinarri etiko-politikoaren aldetik dituen elementu nabarmenenekin osatu nahi du: justizia eta eskubideen ikuspegia, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak. Hala, eredu metodologiko batzuk identifikatu dira, HGHari elementu interesgarri eta osagarriak ematen

dizkietenak. Batzuk zeharkako printzipio gisa uler daitezke, baina baita berariazko tresna eta esparruak dituzten ikuspegi global gisa ere. Adibidez, ikuspegi sozio-afektiboa hezkuntza-praktiken zeharkako ardatz jo daiteke, baina jarraibideak dituen esparru gisa ere har daiteke, hala nola "Aulas felices" programa⁶ (<http://catedu.es/psicologiapositiva/Aulas%20felices.pdf>), etc.

- Arazoetan oinarritutako lanketa kritikoa
- Elkarrizketa bidezko lanketa (galderaren pedagogia)
- Gatazkek konpontzeko bide alternatiboak
- Ikuspegi sozio-afektiboa
- Esperientzian eta egoeretan oinarritutako lanketa
- Proiektutako lana eta lan kooperatiboa
- Ikaskuntza esanguratsua
- Justizia sozialarekiko eduki eta orientazioaren lanketa etikoa

Jarraian, ikuspegi desberdin horiei heltzeko eta haiek eraginkor bihurtzeko elementu batzuk ematen dira. Haien azpisailkapen bat egin dugu, eta autoebaluaziorako eta hausnarketarako erabilgarriak izan daitezkeen galdera kritiko batzuk egin ditugu.

6 Programa "Aulas felices". Psicología positiva aplicada a la educación. R. Arguís, A.P. Bolsas, S. Hernández eta M. del M. Salvador. <http://educaposit.blogspot.com.es/>

6. KOADROA: EREDU METODOLOGIKOAK

Printzipio pedagogikoak	Hura osatzen duten elementuak	<p>Hezitzailea elementua sartzearen edo ez sartzearen inguruko balorazioan gidatzeko galderak</p> <p>(Ikasgelan gogoan izan eta landu dira elementua osatzen duten galdera hauek?)</p>
<p>ARAZOETAN OINARRITUTAKO LANKETA KRITIKOA</p>	<p>Modu ikusgarrian jartzea aztertu beharreko fenomenoaren inguruan ikasleek eta irakasleek duten estereotipoa eta bakoitzaren identitatearekin dituen erlazioak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zer iritzi dute ikasleek aztertu beharreko fenomenoari buruz? • Zergati uste du hori eta zer harreman dago fenomenoaren eta bakoitzaren identitatearen artean? • Nondik eskuratu da balorazio horrek oinarri duen informazioa? (berdin hezitzaile gisa dudak ikuspegiari buruz)
	<p>Aztertu beharreko fenomenoaren ikuspegi historikotik aztertzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Fenomenoari buruzko zer pertzepzio sozial izan dira historikoki? • Zer une historikotan izan dira eta zein zen orduko paradigma dominatzailea? • Nork egin ditu fenomenoari buruzko diskurtso desberdinak? • Zer interes zituzten pertsona, talde edo erakunde horiek fenomenoarekiko?
	<p>Informazio kontrastatu eta fidagarria biltzea (ez neutrala, baizik eta argumentatua eta joeren analisi baten bidez posizionatua).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nork argitaratu du aztergai duguna? • Zer botere-posizio du eta zer interes ditu? • Zer fidagarritasun du informazioak? • Bada fenomenoaren bestelako planteamendu bat egiten duen argitalpenik? • Zer botere-posizio du eta zein dira beste diskurtso horri lotutako interesak?
	<p>Analizatu aztergai dugun fenomenoaren sakon, gogoan izanik kausa-aniztasuna eta fenomenoaren dimentsio bakoitzaren arteko harremanak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arlo desberdinetatik aurkeztu eta aztertu da fenomenoaren? • Bilatu dira arlo horien eta fenomenoaren arteko harremanak planteamendu holistikoa izateko?



<< 6. koadroa: Eredu metodologikoak

Printzipio pedagogikoak	Hura osatzen duten elementuak	Hezitzailea elementua sartzearen edo ez sartzearen inguruko balorazioan gidatzeko galderak
ARAZOETAN OINARRITUTAKO LANKETA KRITIKOA	Fenomenoari buruz dauden diskurtsoak aztertzea eta norenak diren jakitea (nork esan dituen, zer interes dituen, zer botere-posiziotatik esan dituen, etab.).	<ul style="list-style-type: none"> • Zer diskurtso bereizgarri ematen dira une honetan fenomenoari buruz? • Norenak dira diskurtso horiek? • Zer interes eta zer botere-posizio dituzte?
	Aztertu beharreko fenomenoari buruzko jarrera desberdinen arteko kontraesanak hautematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Zer kontraesan daude fenomenoari buruzko diskurtsoen artean?
	Aztertu nahi dugun fenomenoaren inguruan hautemandako kontraesanei buruzko azalpen onargarriak ematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Zein da fenomenoari buruzko kontraesanak gainditzeko aukera ematen duen azalpen onargarriena?
ELKARRIZKETA BIDEZKO IKASKUNTZA. GALDERAREN PEDAGOGIA	Informazioa ematea, irtenbide itxi eta azalpen bukatuak eman gabe.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleari aztertu beharreko fenomenoaren inguruan azalpen onargarriak emateko aukera emango dion informazio-prozesu ñabartu bat izan du abiapuntu?
	Funsgabetasun eta kontraesanak ardatz hartu eta haietan sakontzea, ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan interpelatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Gidatu dira ikasleak ikaskuntza-prozesuan aztertutako fenomenoaren ikuspegian desegokitasunak eragin ditzaketen galdera zalantzen bidez?



<< 6. koadroa: Eredu metodologikoak

Printzipio pedagogikoak	Hura osatzen duten elementuak	Hezitzailea elementua sartzearen edo ez sartzearen inguruko balorazioan gidatzeko galderak
IKUSPEGI SOZIO-AFEKTIBOA	Ikasgelan aniztasuna errespetatzeko jarrerak hartzea eta sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Sustatu da errespetua ikasgela barruan hezitzaileak elkarrizketa bultzatzen duen jarrera ireki bat oinarri izanik?
	Taldeko gainerako kideengan zaintzaren eta laguntasunaren kultura sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lan kooperatiboa lehenetsi da lan lehiakorraren aldean? Indartu dira ikasgelan laguntasun-jarrerak?
GATAZKAK KONPONTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK	Gatazkak lankidetzan kudeatzea ikasgelan, negoziazio eta akordioetara heltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelan gatazka bat sortu bada, elkarrizketa bultzatzeko moduan egin da lan gatazka gainditzeko eta ez enkistatzeko?



<< 6. koadroa: Eredu metodologikoak

Printzipio pedagogikoak	Hura osatzen duten elementuak	Hezitzailea elementua sartzearen edo ez sartzearen inguruko balorazioan gidatzeko galderak
<p>ESPERIENTZIAN ETA EGOERETAN OINARRITUTAKOAK</p>	<p>Ikasgelako kide guztiek fenomenoari lotuta dituzten esperientzietatik abiatzea haien gainean lan egiteko eta azterketa kritikoa eginez desegitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sustatu da ikasgelan aztertutako fenomenoari buruz ikasleen alde aurreko esperientziak partekatzea? • Modu ikusgarrian jarri eta positiboki baloratu da iritzi, profil, bizipen eta abarren aniztasuna?
	<p>Ikasleei informazioa ematea beren ikaskuntza-prozesuari buruzko erabakiak har ditzaten (beren ikaskuntza-prozesuko parte-hartzaile bihurtzea, erantzunkide izan baino lehenagoko fase gisa).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sartu dira ikasgelan parte hartzeko eta erabakitzeko mekanismoak, fenomenoaz aztertzeari lotuta erantzunkidetasuna bultzatuko dutenak?
	<p>Aztertu beharreko fenomenoari lotutako emozioak eragingo dituzten egoerak sortzea ikasgelan. Erreakzio horien arrazoiak azalratzea, haien inguruan hausnartzea, eta lantzea. Adibidez, aukera ematen du arazo jakin batek eragindako haserre egotetik jarduteko eta norberaren portaerak aldatzeko motibazioa izatera pasatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erabili dira <i>role playing</i> teknikak edo antzekoak aztertutako fenomenoari lotutako emozioak txertatzeko eta haien gainean lan egiteko?



<< 6. koadroa: Eredu metodologikoak

Printzipio pedagogikoak	Hura osatzen duten elementuak	Hezitzailea elementua sartzearen edo ez sartzearen inguruko balorazioan gidatzeko galderak
PROIEKTUKAKO LANA ETA LAN KOOPERATIBOA	Ikaslearentzat interes berezi bat duen problematika jakin bat aukeratzeko eta garatzeko bide ematea, eta fenomenoak esploratzeko prozesuan laguntzea. Lan kooperatiboa sustatzea, haren bidez adosteko zer alderdi landu nahi diren eta taldearen posiziotik ekiteko zer aukera dauden.	<ul style="list-style-type: none"> • Sortu dira ikasgelan laguntzeko eta proiektuak garatzeko guneak? • Irakasleak koordinatuta egin du lan ikastetxeko beste irakasle batzuekin problematika bat diziplina anitzetatik (ikasgai bat baino gehiagotatik) eta proiektu bakar baten bidez aztertzeko? • Sustatu da lan kooperatiboa ikasleen artean?
IKASKUNTZA ESANGURATSUA	Aztertu beharreko fenomenoek eguneroko errealitatearekin dituzten loturak aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Proposatu da fenomenoak hurbileko errealitatea kontuan hartuta aztertzea?
	Ikasleei hausnarketa eginaraztea honen inguruan: zer gaitasun duten aztertutako fenomenoari lotutako aldaketak eragiteko beren eguneroko errealitatean.	<ul style="list-style-type: none"> • Bultzatu dira bere egunerokoan fenomenoari lotutako aldaketak egiteko duen gaitasunari buruzko hausnarketak?
EDUKIEN LANKETA ETIKOA. JUSTIZIA SOZIALERAKO ORIENTAZIOA	Justizia sozialean oinarritutako eraldaketa- posizionamendu batetik aztertzea landutako fenomenoak.	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia sozialaren erreferentzia etiko batetik bideratu da ikaskuntza-prozesu osoa?

4

EGITURA-MAILA: ZER LAGUNTZA, BALIABIDE EDO OZTOPO DITUT?

HGHaren praktikak errealitate jakin batean kokatzen dira, ikastetxearen beraren errealitatean, eta, dakigun bezala, ikastetxe bakoitzak bere ikasle-profila, zuzendaritza-taldea, irakasleak, historia... ditu. Askotan, **egitura**-elementu horiek laguntza edo oztopo handiak izango dira gure jarduerarako, eta, horregatik, garrantzitsua da haiei buruz hausnartzea.

Elementu jakin batzuek bereziki **eragiten diote** egiturari: **irakasleek, hezkuntza-komunitateak, eskola-antolakuntzak eta ikasle-profilak.**

Egitura-proposamenaren lehen zehaztapena planteatzeko asmoz, taula honetan jaso ditugu elementu nagusiak, eta lehen zehazpena, zeinak oraindik ez baititu jasotzen adierazleak. Hau da, zehazten du egitura-elementu bakoitzaren barruan zer osagaitan jarri behar dugun arreta (zer fenomeno aztertu

nahi dugun), baina ez da adierazleen definizio bat, haiek behaketa zehatz bat eta dagokion estandarra proposatu behar baitituzte.

Adibidez, "Sareko Irakasleak" elementurako, hiru osagai (edo fenomeno) planteatu dira; HGHren hezkuntza-jardunbide egoki bat egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasunekin lotzen da haietako bakoitza.

- 1. Osagai kognitiboa.** Zer daki hezitzaile honek HGHari buruz?
- 2. Prozedurazko osagaia.** Badaki HGHa aplikatzen eta aplikatzen du bere eragin-eremuan (ikasgela, ikastetxea eta/edo ingurunea)?
- 3. Konpromisoaren osagaia.** HGHaren aldeko jarrera etikoa du hezitzaileak? HGHaren proposamenaren hurbilekoak dira haren balioak?

7. KOADROA: EGITURAZKO ELEMENTUAK

Egiturazko elementuak	Xehetasunak	Elementu bakoitzaren osagaiak
ZU ZEU	Autoebaluatzen den irakaslea eta haren eraldatzeko gaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> HGHari buruz duen ezagutza HGHaren metodologia eta printzipio pedagogiko erabiliak Haiek gauzatzeko dituen gaitasun eta trebetasunak Bere balioak eta konpromisoa
HEZKUNTZA-KOMUNITATEA	Klaustroa	<ul style="list-style-type: none"> HGHari buruz duen ezagutza HGHaren metodologia eta printzipio pedagogiko erabiliak Haiek gauzatzeko dituen gaitasun eta trebetasunak Bere balioak eta konpromisoa; aldaketaren eta eraldaketaren aldeko apustua
	Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> HGHari buruz duen ezagutza HGHaren metodologia eta printzipio pedagogiko erabiliak Haiek gauzatzeko dituen gaitasun eta trebetasunak Bere balioak eta konpromisoa; aldaketaren eta eraldaketaren aldeko apustua
	Guraso-elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> Etxeko jarrera-ereduak eta etxean HGHaren berri izateko ahalegina
	Gurasoak	
	Irakasleak trebatzeko ikastetxeak	<ul style="list-style-type: none"> Trebakuntza-laguntza, bereziki HGHari buruzko ezagutzetan eta harekin bat datozen metodologietan
	Herritartasun Global baterako Hezitzaileen Sarea	<ul style="list-style-type: none"> Trebakuntza-laguntzak sortzen ditu, hausnartzeko elkarrizketarako bide ematen du, konpromisoa indartzen du, eta, azkenik, kontzientziaztea bultzatzen du, eta irakasleen HGHko jarduera prestatzen eta indartzen du



<< 7. koadroa: Egiturazko elementuak

Egiturazko elementuak	Xehetasunak	Elementu bakoitzaren osagaiak
ESKOLA-ANTOLAKUNTZA	Ikastetxearen hezkuntza-programa	<ul style="list-style-type: none"> HGHarekin bat datozen balioak (unibertsalismo-balioak) HGHaren posizionamendu argia; HGHaren zentralitate-nozioa, hezkuntza-proiektuaren parte gisa
	HGHaren beraren jarduerak	<ul style="list-style-type: none"> HGHari lotutako jardueretan emandako ordu-kopurua Curriculum-malgutasuna eta aldaketarekiko irekitasuna
	Ikasgelak eta erabilgarri dauden tokiak	<ul style="list-style-type: none"> Dauden tokiak HGHaren proposamenera egokitzeko nahia (ikasgelako mahaiak biribilean jartzea elkarrizketa errazteko, etab.)
	Ikasgelan lan egiteko denbora eta ordutegien antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> HGHaren printzipio pedagogikoetan oinarritutako "hausnarketa osoen" zikloak egiteko gaitasuna: esperientziei, egoerei, lankidetzari eta abarri lotutakoak.
	Taldean antolamendua	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelan profil-aniztasuna hobetzen duen talde-antolamendu bat izatea aberasgarria izan daiteke, eta HGHrako mesedegarria. Aukera ematen du ikasgelan lantzen ari garen fenomenoaren ikuspegi desberdinak txertatzeko, baldin eta ikasleen bizipenak, ezagutzak eta abar azaltzen badira
IKASLEEN PROFILA	Profila	<ul style="list-style-type: none"> Inguruneen karakterizazioa, aurretik izandako esperientziak, beren familien tipologia eta maila sozioekonomikoa, beren enpatia, faktore baldintzatzaileak, etab.
	Aniztasuna	
	Talde-dinamikak	<ul style="list-style-type: none"> Errespetuz hitz egiteko gaitasuna Alderdi gehienetan HGHarekin bat datozen talde-balioak

TESTUINGURU-MAILA: ZER KANPO-FAKTOREK ERAGITEN DUTE HGHAREN JARDUERAN?

Ikuspuntu sistemiko batetik, **testuinguruak** eredu jasota geratu behar du, HGHan egiten den hezkuntzako esku-hartzearen eta ingurunearen arteko erlazioei buruzko azterketa bat egiteko. Erlazio horretan, elkarri eragiten diote, eta hausnarketa hau egitera bultzatzen gaitu horrek: **zer testuinguru-elementuk laguntzen edo oztopatzen dituzten ikasleak aldaketak lortzera**, eta, alderantziz, **ikasleen zer jarduerak eragin ditzaketen aldaketak testuinguruan**. Gaur egungo testuinguruak ezaugarri hauek ditu:

- Gizartearen balioak eta HGHak sustatzen dituenak desberdinak dira.
- **Hezkuntza-sistemaren balioa gutxitzen** ari da, eta irakasleen funtzioaren izen ona galtzen.
- Doikuntza ekonomikoa
- Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak (LOMCE gaztelaniaz) ekonomia-ikuspegia du. **Ebaluaziorako** curriculumaren lege-esparrua **ezagutzetara bideratuta** dago, ez gaitasun eta jarreretara.
- Fronte askotan hitz egiten da HGHari buruz, baina "onkeria" arriskua dago (planteamendu asistentzialistak indartzea)
- **Burokratizazioa**
- **Hezkuntza-komunitatearen zatikatzea** (hezkuntzako kohesiorik ezari lotutako emozio, sentsazio eta jarrera negatiboak, eta, horren ondorioz, "gatazkak", "dispertsioa" eta sentsazio hau sortzea: "zarata eta presa; kezka, motibaziorik eza eta desorientazioa, adorerik eza, irakasleen inertzia eta immobilismoa, zatikatzea eta indibidualismoa, eta hezkuntza-

komunitatearen benetako interakziorik ez egotea").

- **Herritarren sektore bat sendotzea, eskola publikoak** dituen zailtasunen aurrean hura **defendatzeko eta mantentzeko beharrari lotuta**. Hezkuntza eta osasuna dira defentsa sozialaren bi estandarte handiak.
- **Eskubideak galtzeari buruzko diskurtsoa kalean**. Eskubideak galtzea eta ongizate-estatua desegitea ohiko elementuak dira diskurtsoetan.
- **Gizartea gero eta haserreago egotea eta belaunaldi askotako herritarren protesta**. Mobilizazio ikusgarria kalean eta sare sozialetan (aro digitalean jaiotako belaunaldien bizitza publikorako espazio gisa ere bai). Protesta eta informazio alternatiboa eskuratzea. Familiek kaleko ekintzetan parte hartzen dute, ez "gazte inkonformistek eta idealistek" bakarrik, lehen gertatzen zen bezala. Dena den, kontuan izan behar da ekonomikoki eragiten dien gertuko egoeren aurrean erreakzionatzen dutela familiek.
- **Gero eta eztabaida publiko handiagoa dago politikarekin** —arlotan publikoaren kudeaketatzat hartuta— **eta herritarren parte-hartzearekin erlazionatutako kontuen inguruan**. Ordezkaritzako demokraziarengan ez sinestea; klase politikoak erabat galdu du sinesgarritasuna.⁷

7 Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) barometroa, 2012ko uztaila. Klase politikoa eta alderdi politikoak jotzen dira Espainiako hirugarren arazo nagusitzat.

- **Ustelkeriaren aurrean gardentasuna exijitu ahal izatea.** Kapitalari lotutako talde boteretsuei laguntzen zieten botere-harremanak azaleratu dira; besteak beste, enpresaburuak, bankariak eta politikariak daude tartean.
- **Gero eta gehiago jartzen dira zalantzan kapitalismoaren oinarriak;** bereziki, bankuen eta merkatuen rolak.
- **Indibidualismoak eta kontsumismoak inspiratutako balio eta sinesmenen sistemarekiko lotura etetea.** Ez dago, jada, eredu horrek ondo funtzionatzeko baliabide ekonomikorik; indarrez hartu da jarrera hori, konbentzimenduz baino gehiago.
- **Bizitza-eredu alternatiboen planteamenduak, gero eta gehiago:** hiri-baratzeak eta nekazaritza ekologikoa, kontsumo-taldeak, etab.
- **Pobreziaren, ahultasunaren eta bazterketaren hurbilketa.** Gero eta jende gehiagok ezagutzen ditu hurbilagotik etxegabetzeak, langabezia, gutxieneko baliabide ekonomikorik ez izatea, eta abar. Hori dela eta, ahultasun-egoera hori ez zaio lotzen jada utzikeriari edo alferkeriari, baizik eta herrialdearen alderdi sozioekonomikoei, aukera faltari; azken batean, alderdi estrukturaleri.
- Gazteria **galduta eta ilusiorik gabe** sentitzen da **aukerarik ez** duelako. Dena den, trebakuntza politiko eskasa izan arren, gazte-mugimendu gehienek nahiko muturrekoak diren planteamendu inkonformistak dituzte, eta parte-hartzean eta ekintzan oinarritutako ekimenak proposatzen ari dira.
- **Gizarte-mugimendu berrien desideologizazioa.** "Onkeria aseptiko"tik ulertzen da mugimendu soziala. Apolitikoa izatea modan dago. Jende askok ez du posizionatzen bere burua, eta apartidista ez ezik, apolitiko agertzen du bere burua. Halaber, erakunde askok apolitiko-itxura eman nahi dute, "neutral" gisa agertu; uste dute ez dela komeni politikoki posizionatzea, etsaitasunik ez izateko finantziatzaileekin, tokiko gobernuekin eta abarrekin.

Gaur egun Espainiako estatuan dauden eta herritartasun globalarekin eta hezkuntzarekin lotura duten elementu horiek guztiek aukera ematen digute ikasleak eta irakasleak zer sistematan barneratuta dauden ulertzeko, eta, neurri handi batean, HGHen hezkuntza-jarduerak diseinatzean dauden behar eta aukerak hautemateko.

II. KAPITULUA

NOLA ERABILI IRIZPIDE ORIENTATZAILEEN SISTEMA



irizpide-sistemak **garatutako proposamen edo praktiken inguruko hausnarketa kritikoa errazteko tresna- eta baliabide**-sorta bat eskaintzen du, HGHko oinarriak (kontzeptualak, metodologikoak, eta abar) oinarri hartuz. Tresna horiek, bai eta ikuspegiak ere, honelako galderak erantzuten lagundu behar digute:

- Ikasleek herritar global batek izan beharko lituzkeen ezagutza, gaitasun eta jarrerak sendotu ditzaten sustatzen ari naiz?
- HGHarekiko metodologia edo praktika koherente eta egokiak garatzen ari naiz? Zer hobetu dezaket?
- Inguruan dudan egiturak nire praktiken kalitatea eta, beraz, haren emaitzak sakontzen laguntzen dit edo zailtasunak jartzen dizkit? Nola? Badira hobeto aprobetxa ditzakedan gauzak?
- Zenbateraino eragiten diote (onerako edo txarrerako) testuinguru soziopolitikoaren elementu batzuek ikasgelan/eskolan lantzen ari garenari? Bada aukerarik testuinguru horretako zenbait alderdi aldatzeko hezkuntza-jardunak oinarri harturik?

Dena dela, nahiz eta galderak egokiak izan hausnarketa sakona egiteko, **denok ezin ditugu (edo ez dugu nahi) batera erantzun beti**. Beraz, irizpide-sistema oso malgua da, eta era askotara erabil daiteke, osorik edo partzialki. Bi moduok ez dira baztertzailak; aitzitik, osagaiak nola, noiz eta zer kondiziotan erabil ditzakedan ulertzeko bi modu dira.



1

EBALUATU NAHI DIREN ATRIBUTUEN ARABERA

Aukeretakoa bat da irakasle batek atributuen bat lantzea erabakitzea, aurrediagnostiko bat, curriculum-helburu batzuk edo ikasleen arteko egoera/arazo jakin bat oinarri harturik. Halakoetarako, **koadro batzuk eskaintzen ditugu, atributu bakoitza (edo erlazionaturik dauden atributu-multzoak) eduki eta/edo praktika metodologiko jakin batekin lotzen dutenak**. Atributu eta eduki/metodologiaren arteko erlazio hori ez da bakarra, ezta itxia edo determinista ere. Zuzenago erlazionatutako elementu batzuk identifikatzen laguntzeko eskaintzen da soilik, baina begien bistakoa da adierazitakoak baino erlazio gehiago daudela eta beste elementu batzuk, berriz, zeharka daudela erlazionatuta, ez zuzenean.

Dena dela, gomendatzen dugu zuzenean landutako atributuak identifikatzea, gure hausnarketa- eta analisi-esparrua mugatzeko.

Hurrengo azpiataletan, atributuak motaren arabera (kognitiboak, gaitasunak, jarrerak) aztertzeko tresna batzuk iradokitzen ditugu; dena dela, zeharka ere baliagarri izan daitezke tresnok. 7. tresna interesgarria da atributuen aldaketaren balorazio orokorragoa egiteko, rol-jokoa erabiltzen baitu eta, beraz, eraguztietako atributuak atera baitaitezke horrela.

Azterketa osoa egiteko, garrantzitsua da irakasleak atributu-aldaketari eragin diezaioketen (aurrera edo atzera eraginez edo geldiaraziz) beste alderdi batzuen (testuingurua-egitura) inguruko hausnarketa egitea; beraz, komeni da 9. tresna erabiltzea beti.

1.1. ATRIBUTU KOGNITIBOAK

Atal honetan, erlazionatuko dira **ikasleek ezagutzen mailan lortu beharko lituzketen emaitzak** irakasleek ezagutzok lortzeko prestatzen dituzten hezkuntza-praktikekin (ebaluazio-prozesuak). Horretarako, diagramak erabiliko ditugu, oso teknika interesgarria baita Programaren Teoria ikuspegi sistemikotik ulertzeko.⁸ Jakina, errealitatearen sinplifikazio bat da, haren modelizazio bat; izan ere, proposatutako logika ulertzen laguntzen dute diagramak, baina, bestalde, erlazio-trazadura konplexu bat oztokatzen dute (zenbait eduki eta/edo printzipio atributu bat baino gehiago lantzeko balio dutenean, adibidez).

Hori kontuan izanik, honela formulatuko dira ezagutzetara bideraturiko hezkuntza-praktikok:

1. HGHaren inspirazio-iturri diren gaiak
2. Edukia lantzeko printzipio pedagogikoak

Kontuan hartu beharreko eremu eta gaiak iradokitzen dizkigute edukiek, baina, horretaz gain, esplizituki adierazi behar da zer printzipio pedagogikok bideratu behar dituzten edukiok, bat etor daitezzen HGHaren proposamenarekin.

Segidan jasotako diagramari esker, atributu kognitiboen maila lortzeko prestatutako gai inspiratzaileak erlazona daitezke.

Eduki bakoitza atributu bakoitzarekin erlazionatzean, ikusi dugu historikotasun eta eraldaketako edukiak ez zuela atributu

8 Funnell & Rogers, 2011.

espezifikorik⁹. Halaber, "Berdintasuna eta eskubideak" ataleko edukia doitzen lagundu du, aniztasuna errespetatzeko atributua lortzen lagunduko duen identitate inklusiboaren kontzeptua ere sartzeko.

Ertz granate batez markatutako edukiak hauei dagozkie: genero-desberdintasunen

ulermena, gatazken kudeaketa eta adimen emozionala garatzeko beharra. Aztertu nahi duzun atributua (edo atribuetako bat) kognitiboa baldin bada, 4. tresnak lagunduko dizu gehien, zalantzarik gabe, ikasleen diskurtso-aldaketa aztertzen.

9 Kooperazio eta Etikako Ikasketa Taldeko Ikerketa eta ekintza partizipatiboa taldeak (EHU) proposatutako atributuak.

8. KOADROA: GAIEN ETA ATRIBUTU KOGNITIBOEN ARTEKO HARREMANA

HGH-AREN CURRICULUMA	JAKINTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA
	(ez da informazio soil)
<p>Ikuspegi sozio-afektiboa</p> <p>Ekitatea (identitate inklusiboak eta generoa barne) eta eskubideak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Justizia soziala eta ekitatea, eta gure ardurak herritar global gisa ulertzea. ● Aniztasuna ulertzea eta errespetatzea. ● Genero-desberdintasunen inguruko kontzientzia hartzea
<p>Elkarrizketa bidezko ikaskuntza</p> <p>Herritarren parte-hartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Kideen mundu-komunitate baten esanahi etikoa ulertzea ● Parte-hartzean oinarritutako boterea ulertzea
<p>Elkarrizketa bidezko ikaskuntza</p> <p>Globalaren eta tokikoaren arteko harremana</p> <p>Garapen-ereduak (ekologiaren eta ekonomiaren arteko harremana)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Ekonomiaren, politiken, alderdi sozialen, alderdi kulturalen eta ingurumenaren arteko harremanak ulertzea
<p>Lanketa kritiko, arazoetan oinarrituta</p> <p>Historikotasuna eta eraldaketa. Subjektuaren papera</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Aldaketa soziala eta subjektuak eta kolektibitateak aldaketarako duten ahalmena historikoki ulertzea.
<p>Lanketa kritiko, arazoetan oinarrituta</p> <p>Gatazken kudeaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Gatazken jatorria eta horiek kudeatzeko estrategiak ulertzea.
<p>Lanketa kritiko, arazoetan oinarrituta</p> <p>Inteligentzia emozionala, bizitzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Inteligentzia emozionala garatzeko beharra ulertzea.

1.2. GAITASUN-ATRIBUTUAK

Berriz ere, gaitasun-atributu bakoitza hura gehien garatzen laguntzen duten hezkuntza-jardunekin erlazionatuko da.

Hezkuntza-jardunen garapena, hemen, ez dago gai inspiratzaileen mende, baizik eta beste alderdion mende: nola lan egiten den ikasgelan eta zer printzipio pedagogikok

laguntzen duten emaitzak lortzen. Kasu honetan, informazioa diagrama batean antolatzeak lehenengo blokeko gaitasunen sekuentzia ordenatzen lagundu du, hala hobeto ulertzen baita gaitasunok ez direla paraleloan sortzen sekuentzialki baizik. Halaber, aukera eman du ikusteko alderdi etikoa ere landu behar dela edukiak lantzean (hala adierazten du ertz laranjako azken geziak), guztion ongirako lan egiteko atributua lortzeko oinarri gisa.


9. KOADROA: HEZKUNTZA-JARDUEREN ETA GAITASUN-ATRIBUTUEN ARTEKO HARREMANA

LANAREN ANTOLAMENDUA GELAN

AURREBALDINTZA: Denbora eta espazioak banatzea, HGHeKiko modu koherentean ECG

HERRITAR AKTIBOEN TREBETASUNAK

Bereziki, beste pertsonekin harremanetan



Aztertu nahi duzun atributua (edo atributuetako bat) kognitiboa baldin bada 5. tresnak lagunduko dizu gehien, zalantzarik gabe, ikasleen portaera-aldaketa batzuk aztertzen (haien dinamikari buruzko oharrak erregistratuz, eta abar).

1.3. JARRERA-ATRIBUTUAK

Azkenik, herritartasun globalaren balioekin erlazionatutako atributuak edukiekin eta printzipio pedagogikoekin lotzen dira. Hurrengo diagramak azaltzen du nola espero den jarrera-atributuak (angeluzuzen berdeak) lortzea, gai inspiratzaileak (gezi moreak) eta printzipio pedagogikoak (gezi laranja) oinarri harturik.

Aztertu nahi duzun atributua (edo atributuetako bat) jarrerakoa baldin bada, 6. tresnak aukera ematen dizu inkesta bat egiteko ikasleen artean, aldaketok hautemateko.

Hala ere, inkesta estatistikoki "baliozkoa" izan dadin, estandarizazio edo baremo global batzuk behar dira.

10. KOADROA: HEZKUNTZA-GAIEN ETA -JARDUEREN ETA JARRERA-TRIBUTUEN ARTEKO HARREMANA

HGH-AREN JARRERAK ETA PRINTZPIOAK

BALIOETAN OINARRITUTAKO JARRERAK



2

NIRE INTERES, EZAGUTZA ETA AUKEREN ARABERA

Sistema honen ikuspegiaren arabera, hura osatzen duten elementu guztiak bata bestearekin lotuta daude, eta, hori kontuan izanik, **elementu horiei guztiei buruz batera hausnartzea litzateke egokiena**, ahalik eta gehien ikasteko eta hobetzeko gakoak lortzeko.

Hala ere, 12 tresna eskaintzen ditu sistemak, bakarka erabil daitezkeenak, egoera, aukera eta interes desberdinetara egokitzeko aukera ematen dutenak.

11. KOADROA: INTERES, EZAGUTZA ETA AUKEREN ARABERAKO TRESNAK

Interes eta aukera desberdinetan oinarritutako egoera tipoak	Tresna hauek erabiltzea gomendatzen dizugu...
Kaidararako materialak prestatu nahi ditut, eta autoebaluazioko tresna baliatu materialon egokitasun eta koherentziaren inguruan hausnartzeko.	>1
Ikasgelan erabili dudak Kaidararako material bat hobetzen lagundu nahi dut	>11
Denbora gutxi dut, baina autoebaluazioko tresnarekin esperimendatzeko eta nire jarduna hobetzen lagunduko didaten elementuak sartzeko gogoia dut	> 8 eta >10 (HGHko praktikak)
Denbora gutxi dut, baina autoebaluazioko tresnarekin esperimendatzeko eta nire jarduna hobetzen lagunduko didaten elementuak sartzeko gogoia dut.	>4, >5 eta >6 (atributuak)
Tresna aplikatzen hasi nahi dut. Lehenengo aldia denez, elementu batzuekin hasi nahi nuke, ez denekin batera.	>3 (plangintza sistemikoa) >8 eta >10 (HGHko praktika), >4, >5, eta >6 (atributuak) eta >12 (azken analisia eta emaitzen sistematizazioa)
Asko gustatu zait tresna, eta uste dut aukera handiak ematen dituela. Osorik aplikatu nahi dut, azterketa sistemikoa osatzeko.	DENAK , 1a izan ezik (Kaidaran eskura dagoen materiala baldin bada)

3

TRESNAK ERABILI NAHI DIREN / ERABIL DAITEZKEEN UNEAREN ARABERA

Era berean, hausnartu nahi den hezkuntza-prozesu osoan (plangintza, betetzea eta ebaluazioa) erabiltzen badira irizpide orientatzaileak, etekin handiagoa aterako zaie irizpideoi (ikaskuntzari begira).

Hala ere, tresnen diseinua kontuan hartuz, une jakin batzuetan (prozesuaren aurretik, prozesua garatu bitartean eta/edo ondoren) erabilgarri edo onargarri diren tresnak bakarrik erabil daitezke.

12. KOADROA: APLIKATZEKO UNEAREN ARABERAKO TRESNAK

Tresna	Zer dimentsio ebaluatzen du?	Nori egiten dio galdera?
ETAPA: PRAKTIKA HASI AURRETIK (PLANGINTZA-ETAPA)		
2. AMIA	Egitura eta testuingurua	Irakasle arduradunak
3. Plangintza sistemikorako matrizea	Diseinu sistemikoaren logika	Irakasle arduradunak
ETAPA: HGH-KO PRAKTIKA EGIN BITARTEAN		
Praktika hasi baino justu aurretik		
4. Diskurtso konparatiboaren azterketa. Aurretik kontzeptuala.	Ikasleen atributu kognitiboak	Ikasleak
5. Gaitasunei buruzko oharren egutegia. Gaitasunei buruzko aurretik	Ikasleen gaitasun-atributuak	Ikasleak
6. Ikasleei inkesta banatzea. Jarrerari buruzko aurretik	Ikasleen jarrera-atributuak	Ikasleak
7. (aukerazkoa, triangulazioa indartzeko): Rol-jokoari buruzko aurretik	Ikasleen atributuak	Irakasle arduradunak
Praktika egin bitartean		
8. Autobehaketa edo beste irakasle batek zure jarduna behatzea eta parte hartzea ikasgelan	HGHko praktikak	Irakasle arduradunen lankidea



<< 12. koadroa: Aplikatzeko unearen arabera tresnak

Tresna	Zer dimentsio ebaluatzen du?	Nori egiten dio galdera?
9. Testuinguru-aldaketen egunkaria	Testuingurua	Irakasle arduradunak
ETAPA: PRKTIKA AMAITUTAKOAN		
4. Diskurtso konparatiboaren azterketa. Testondoren kontzeptuala	Atributu kognitiboak	Ikasleak
5. Gaitasunei buruzko oharren egutegia. Gaitasunei buruzko testondorena	Gaitasun-atributuak	Ikasleak
6. Ikasleei inkesta banatzea. Jarrerei buruzko testondorena	Jarrera-atributuak	Ikasleak
7. Rol-jokoari buruzko testondorena	Ikasleen atributuak	Irakasle arduradunak
10. HGHko zure praktikari buruzko tailerra ikasleekin	HGHko praktikak	Ikasleak
11. Kaidarako materialei buruzko onlineko inkesta (Kaidaratik hartu bada)	HGHko praktikak eta logika sistemikoa	Irakasle arduradunak
12. Azken azterketa sistemikoa, interpretazioa eta ikaskuntza.	Dimentsio guztiak eta logika sistemikoa	Irakasle arduradunak

4

HONEN ARABERA: PROPOSAMEN BAT DISEINATZEN ARI NAIZEN EDO ESPERIENTZIA BATI BURUZKO HAUSNARKETA EGITEN

Azkenik, kalitate-irizpideek **praktika jakin batzuei buruzko hausnarketa bultzatzeko balio dute, bai eta hezkuntza-proposamen eta -materialen diseinua bultzatzeko ere** (eta haiek praktikak bultzatuko dituzte). Beraz, **tresnen artean aukeratu daitezke** baliabide edo proposamen didaktiko bat diseinatzeko

balio dutenak (adibidez, *Global express*, *Conectando mundos*, eta abar) eta ikasleekin egindako praktikei buruzko hausnarketa egiteko balio duten beste batzuk (Oxfam Intermónen materialetan oinarrituak edo bestelakoak).

13. KOADROA: JARDUERAK DISEINATZEKO ETA HAUSNARKETARAKO TRESNAK

HGH-KO PROPOSAMENEN ETA MATERIALEN DISEINUA
1. TRESNA HGHko proposamenen/materialen diseinua bideratzeko fitxa
PRAKTIKA ETA ESPERIENTZIEI BURUZKO HAUSNARKETA
2TIK 12RA BITARTEKO TRESNAK, une bakoitzean erabilgarri daudenak kontuan hartuz.

III. KAPITULUA

TRESNAK



Esan dugun bezala, ia bakarka erabil daitezkeen 12 tresnek osatzen dute proposamena, nahiz eta tresnetako bakoitzak praktika/proposamenen alderdi desberdinak aztertzeko balio duen. Beraz, hori kontuan hartuz, tresna guztiak, edo ahalik eta gehienak, erabiltzea litzateke egokiena.

Aurreko kapituluan, zer tresna eta noiz erabili jakiteko irizpideei buruzko ikuspegi orokorra eman dugu; orain, berriz, tresnei buruz arituko gara.



1

ALDERDI OROKORRAK

Praktiken eta lortu nahi diren emaitzen (atributuen) azterketari nola heldu jakiteko ohar batzuk egingo ditugu lehenengo, hiru galdera gako abiapuntu harturik:

- Subjektuak
- Prozesuaren ikuspegia
- Zer aldaketa lortu nahi da?

1.1. SUBJEKTUAK

Nork parte hartzen du prozesu honetan? Nork ebaluatzen du nor? Bada subjektibotasun-arriskurik halako balorazioetan?

Gogoraz dezagun azalpen oinarrizko bat: **hezkuntza-praktikak aztertu behar dira**; hau da, kontua ez da ikasleei notak jartzea, ezta geure buruari, irakasle garen neurrian, notak jartzea ere. **Kontua da aztertzea ea egiten ari garen praktikek gure ikasleen atributuak aldatzen laguntzen duten eta zer faktorek (berezkoak edo testuinguruarenak) mugatzen edo bultzatzen duten aldaketa hori.** Baina, nahiz eta praktikak aztertu, praktika horretan parte hartzen dutenen ikuspegi subjektibotik bakarrik egin dezakegu hori. Hala, ikasleen eta gure informazioa jasotzen badugu, ondorioak ateratzen lagunduko diguten datuak, erreferentziak edo ebidentziak lortzen saiatuko gara.

Informazioa ikasleengandik eta gugandik (edo praktika egiten duen irakaslearengandik) lortzea interesatzen zaigu; baina interesgarria izan daiteke, halaber, testuinguruaren elementu batzuk edo inplikaturako beste aktore batzuk (familia, beste irakasle batzuk, zuzendaritza-taldeak) ere kontuan hartzea eta haiengandik ere informazioa jasotzea.

Zenbat eta informazio gehiago jaso ahalik eta aktore gehienengandik, orduan eta informazio gehiago izango dugu kontrastatzeko eta ondorioak ateratzeko.

Hona hemen horretarako ideia praktiko batzuk:

- **Kideen ebaluazioa edo koebaluazioa:** beste irakasle bati eskatu gure jarduna "behatzeko" saio batean edo gehiagotan, eta hark iritzia ematea, elementurik interesgarrienak kontuan hartuz. Halaber, "autoebaluazio"rako zenbait tresna ere erabil ditzakete behatzaileek, kontraste-elementuak izan ditzaten.
- **Ikasleei galdetu:** inkesta/galdetegen bidez edo beste metodologia ez hain kuantitatibo bidez, **garrantzitsua da jakitea zer iritzi duten protagonistek ikasi edo aldatu dutenari buruz.** Galdera zuzenak, kasu-azterketa eta beste tresna batzuk erabil daitezke, baina ikasleek esaten dutena funtsezkoa da, noski, eragindako aldaketa baloratzeko. Gainera, ebaluazio-teoriarik berritzaileen arabera, aktoreek berek beren ebaluazioan parte hartzen badute, konpromiso-eta inplikazio-maila handiagoa hartzen dute lortu beharreko helburuekin.
- **Behaketa-fitxak:** keinu batek ehun hitzek baino gehiago balio duela esan ohi da. Beraz, garrantzitsua da **ondorioak ateratzeko ez bakarrik kontuan hartzea pertsonen zerbait galdetzen zaienean esaten edo erantzutendutena, baizik eta, horretaz gain, haien jokabide eta jarrerari ere erreparatzea.**
- **Pasadizoak dokumentatzea:** batzuetan, **adibide bat edo egoera jakin bat da aldaketa baten (edo aldaketa faltaren) ebidentziarik onena;** beraz, horiek jasotzeko eta ez ahazteko tresnak ere eskaintzen dira.

1.2. PROZESUAREN IKUSPEGIA

Gutziz ezinezkoa da (edo aski zaila behintzat) "aldaketak ikustea", ez badugu gure egiten HGHari dagokion prozesu-ikuspegia. Horrek ez du esan nahi, hala ere, aldaketak epe luzera gauzatzen direnez ezinezkoa dela epe laburrean ere gauzatzen saiatzea. Aitzitik, esan nahi duena da zenbat eta informazio gehiago jaso prozesuan zehar are errazago emango dugula gertatzen diren aldaketa txikien berri. **Eta hori ahalik eta hobekien lortzeko, egokiena da bi unetan jasotzea taldearen herritartasun globalaren (edo hari loturiko atributu espezifikoko batzuen) egoerari buruzko iritziak eta ebidentziak: batetik, lanean hasteko unean, eta, bestetik, taldearekin HGhko hezkuntza-praktikak egin ondoren.** Horri esker, datu garrantzitsu ugari jasoko ditugu, lagunduko digutenak ikusten zenbaterainoko urratsak egin dituzten ikasleek eta nola indartu/bideratu ditzakegun hezkuntza-praktikak prozesua sustatzen jarraitzeko.

Horregatik, **II. kapituluaren 3. atalean** praktikako une bakoitzerako tresna egokien laburpen bat eskaintzen dugu, eta berresten dugu praktika egin aurreko eta ondorengo tresnak modu integratuan erabiltzea dela egokiena.

1.3. ZER ALDAKETA LORTU NAHI DA?

Ebidentziak neurtu edo erregistratu ondoren, ikusiko da nolako eboluzioa izan duen taldeak herritartasun globalari (edo hari loturiko atributu batzuei) dagokionez; baina nahikoa al da nire ikasleek izan duten eboluzioa? Eta ez bada aurrerapauso nabarmenik ikusten, esperientziak porrot egin duela esan nahi du? Zer da, hemen, arrakasta izatea?

Gogoan izan behar da irizpide-sistema ez dela tresna kuantitatibo bat X aldaketa-"indize" bat kontuan harturik praktika onak eta txarrak zein diren zehazten duena. Hori baino askoz garrantzitsua da jasotako datuen inguruan hausnartzea eta hausnarketatik ikastea, gero gure praktiken kalitatea hobetzen edo haien eragina areagotzen laguntzeko: zer errepikatu behar dugu, zer hobetu, zer jarduera berri erantsi?

Gaur egun, intuizio hutsez hartzen ditugu halako erabaki asko. Baina informazioak hauek guztiak ulertzen laguntzen du: hezkuntza-praktikatik kanpoko zer aldagaik laguntzen edo oztopatzen duten herritartasun globaleko atributuak lortzea; ikasleen zer profilek duen zailtasun gehiago herritartasun globaleko atributuak bereganatzeko; zergatik eta nola planteatzea daitezkeen aldaketak hezkuntza-praktikan ikasleen profila hobetzeko; nola sendotu behar den praktika ia batere aldatu ez diren atributuak aldatzen laguntzeko. Hala, behar diren doikuntzak egingo egingo ditugu praktiketan, emaitzen eboluziorik egokiena lortzeko.

Beraz, ikasleen herritartasun globaleko atributuak aldian behin erregistratuz eta neurtuz gero, ebidentziak —eta ez sentsazio hutsak— izango ditugu hazkuntza-praktika aztertzeko eta hartatik ikasteko. Halaber, ikusiko dugu ikasleen atribuetan hautemandako aldaketak aurrerapauso baliozko gisa interpreta daitezkeela, nahiz eta batzuetan oso txikiak eta ez behar adinakoak iruditu.

1. TRESNA

KAIDARARAKO MATERIAL PEDAGOGIKOAK DISEINATZEN LAGUNTZEKO FITXA

Galdera kritiko batzuk jaso ditugu, proposamen didaktiko bat prestatu aurretik —edo prestatu bitartean— hausnarketa egiten lagunduko dizutenak eta proposamenean HGHko ikuspegia jasota dagoela egiaztatzeko balioko dutenak.

PROPOSATZEN DUZUN MATERIALA DELA ETA...

1. Non hartzen du oinarri? (ikasgela, ikastetxea edo ingurua...) Ikasleekin lan egiteko proposatzen baduzu, zer hezkuntza-mailatarako da?
2. Zer atributu (kognitiboak, gaitasunak eta jarrerak) sortu/sendotu nahi dituzu proposamenaren bidez?
*Esparru orientatzaile gisa, **atributu-proposamena** aztertzea proposatzen dizugu. (Gogoan izan hobe dela errealista izatea eta zuretzat garrantzitsuen diren eta, beraz, ikasleen artean sustatu nahiko zenituzkeen alderdiak zehaztea).*
3. Aukeratutako gaien sartu dituzu, zuzenean edo zeharka, **HGHaren eduki/ikuspegiak**? Nola lotzen da gai hori ikasgelan lantzen diren beste curriculum-eduki batzuekin? (Gogoan izan lagungarri izan dakizukeela **18. orriko** koadroa, zeinak edukiak atributuekin erlazionatzen baititu)
4. Zer **metodologia** proposatuko duzu, eta zergatik uste duzu metodologia hori HGHarekin lotua dagoela? (Gogoan izan ez duzula zertan erabili HGHarekin bat datozen printzipio metodologiko guztiak. Lagungarri izan dakizkizuke **atributuak metodologiek**in erlazionatzen dituzten koadroak, eta **ikuspegi metodologikoak** osatzen dituzten elementuak kontsultatu ditzakezu zure azterketa mugatzeko eta, hala, helburuetan errealista izateko).
5. Proposamena bideratzeko funtsezkoak diren **egiturazko** edo **testuinguruko** elementuak daudela uste duzu?
6. Hezkuntza-komunitateko beste aktore batzuek parte hartzen dute, zuzenean edo zeharka, proposamen honetan?
7. Azkenik, nola lor dezakegu ikaskuntza benetan esanguratsua izatea?

2. TRESNA

AMIA

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p><i>(HGHa oztopatzen duten barne-elementuak: irakasleak, ikasleak, ikastetxea, eta abar)</i></p> <p>Ahuleziak aztertzen lagunduko dizuten galdera batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HGHaren aurkako jarrera du zure ikastetxeak? Nolako erresistentziak daude? • Zure ikasleen profilak zertan oztopa dezake HGHa aplikatzea ikasgelan? • Zer muga dituzu irakasle gisa HGHaren inguruko aldaketak sortzeko ikasleen artean? 	<p><i>(HGHa oztopatzen duten kanpo-elementuak: ingurukoak, testuingurua, eta abar)</i></p> <p>Mehatxuak aztertzen lagunduko dizuten galdera batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HGHaren aurkako zer balio-aldaketa ari dira gertatzen zure inguruan? Indartzen ari dira HGHaren aurkako balioak? • HGHaren aurkako zer muga ekonomiko edo legezko ari dira gertatzen zure inguruan?
INDARGUNEAK	AUKERAK
<p><i>(HGHa errazten duten barne-elementuak: irakasleak, ikasleak, ikastetxea, eta abar)</i></p> <p>Indarguneak aztertzen lagunduko dizuten galdera batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HGHaren aldeko jarrera du zure ikastetxeak? Nolako laguntzak daude? • Zer barne-laguntza lor ditzakezu HGHaren inguruko zure lanean? • Zure ikasleen profilak zertan lagundu dezake HGHa aplikatzen ikasgelan? • Zer indargune dituzu irakasle gisa HGHaren inguruko aldaketak sortzeko ikasleen artean? 	<p><i>(HGHa sustatzen duten kanpo-elementuak: ingurukoak, testuingurua, eta abar)</i></p> <p>Aukerak aztertzen lagunduko dizuten galdera batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zure ikastetxetik kanpoko zer laguntza lor ditzakezu HGHaren inguruko zure lanean? • HGHaren aldeko zer balio-aldaketa ari dira gertatzen zure inguruan? Zalantzan jartzen dira HGHaren aurkako balioak? • HGHaren aldeko zer bultzada ekonomiko edo legezko ari dira gertatzen zure inguruan?
<ul style="list-style-type: none"> • Nola orekatuko zenituzke ahuleziak edo oztopoak zure laguntzak (indarguneak eta aukerak) baliatuta? • Zer erronka identifikatu dituzu hurrengo saioetarako? 	

Tresna hau praktika hasi aurretik (prospektiban) eta bukatu ondoren (atzera begirakoa) baliatu beharko litzateke HGHaren alde edo aurka dauden elementuak jasotzeko, gertatu diren aldaketak onartzeko eta HGHa bideratzean aldaketak kontuan hartzeko, eta hurrengo ikasturterako/saiorako hobekuntzak proposatzeko.

Komeni da hiru uneak banaka jasota uztea: (1) zein den abiapuntuko analisia; (2) zer aldaketa gertatu diren ikasturtean; eta (3) zer aldaketa gertatu diren praktikan.

3. TRESNA

PLANGINTZA SISTEMIKORAKO MATRIZEA

Plangintza-/ebaluazio-prozesua hasteko, logikoena da zeure buruari galdetzea zer atributu nahi dituzun/zenituen aldatu, eta gero, beste elementuekin erlazionatzea: nola eta zer abiapuntutatik landu zenituen/landuko dituzu? Zer emaitza lortu dituzu?

Beheko koadroa betetzen lagunduko dizute galderok:

1. Pentsatu zein diren praktikaren bidez ikasleen artean sustatu nahi dituzun/nahi zenituen atributu nagusiak. **Atributuen koadroa** erabil dezakezu inspirazio-iturri gisa. (Motaren arabera sailkatu: kognitiboak, gaitasunak, jarrerak).
2. Jaso sistematikoki nola sustatuko dituzun atributu horiek. HGHko zure praktikan landu ditzakezun **gai inspiratzaileei eta printzipio pedagogikoei** buruzko adibide batzuk kontsultatu ditzakezu.
3. Zerrendatu itzazu praktika egiteko laguntza edo oztopo iruditzen zaizkizun **elementu egiturazkoak**.

Zure ikasleen artean sustatu nahi dituzun atributuak	Atributu-mota (E/G/J) ¹⁰	Nola nahi dituzu sustatu atributuok? Zer gai, printzipio pedagogiko eta metodologia proposatzen dituzu?	Zer egiturazko elementuk lagunduko edo oztopatuko dizute, zure ustez, atributu horiek garatzen?
Zergatik atributu horiek eta ez beste batzuk? Testuingurua kontuan hartuz erronka bat direlako aukeratu dituzu atributu horiek? Nola identifikatu dituzu?			
Egiturak eskaintzen dizuna eta landu nahi dituzun praktikak/gaiak egokiak izango dira atributu horiek garatzeko?			

¹⁰ E: ezagutzak / G: gaitasunak / J: jarrerak.

4. TRESNA

DISKURTSO KONPARATIBOAREN AZTERKETA (AURRETESTA/TESTONDORENA)

Berez, ez da tresna bat, baizik eta jarraibide-sorta bat, ikasleen atributu kognitiboetan (ezagutzak) aldaketarik izan ote den zehazten laguntzeko.

Gogoan izan garrantzitsua dela praktika egin aurreko egoera egin ondorengoarekin konparatzea, ikusteko zer aldaketa izan diren ikasle bakoitzarengan praktikak iraun bitartean.

Proposamena erraza da: ikasleei eskatu behar zaie deskribatzeko zer den berentzat kontzeptu jakin bat eta aipatzeko kontzeptu horrekin erlazionaturiko adibide, egoera edo bizipen batzuk. Adibidez: pobrezia, desberdintasuna, eta abar. Modu askotara egin daiteke deskribapena, zer hezkuntza-mailatan gauden kontuan hartuz: kontzeptu hori osatzen duten elementuen inguruko ideia-zaparrada bat, kontakizun bat idatzi, marrazki bat egin...

Neurtu nahi den praktika amaitu ondoren, hasi aurretik definitzeko eskatu zitzaien kontzeptua berriz definitzeko eskatuko zaie ikasleei.

GARRANTZITSUA: nahiz eta ariketa hau anonimoa izatea gomendatzen den (ez dadin hartu ohiko ebaluazio gisa), garrantzitsua da ikasleek beren aurretesta eta testondorena nolabait identifikatzea —inizialekin edo gezurrezko izen batekin (bietan berdina, noski)—, ikasle bakoitzak izandako aldaketa aztertu ahal izateko.

Irakasleak azterketa bat egin behar du ikasle bakoitzaren —edo talde osoaren— mintzaldian izandako aldaketak konparatzeko.

5. TRESNA

GAITASUNEI BURUZKO OHARREN EGUTEGIA (AURRETESTA/TESTONDORENA)

Egutegi erdiegituratu bat proposatzen dugu, irakasleari aukera ematen diona ikasleen gaitasunei buruzko datuak detektatzeko. Horretarako, gaitasunen arteko interakziorako aukera ematen duten espazioetan behatuko ditu ikasleak, eta gero, erregistro batean jasoko ditu ebidentziak (balio sinbolikoko pasadizoak), zeinak autoebaluziorako oinarri izango baitira.

GAITASUNEI BURUZKO OHARREN EGUTEGIA

Behaketa bakoitzean, puntu hauek jasotzea proposatzen dizugu:

- 1. Landu nahi dituzun gaitasunen zerrenda (2. tresnan egindako zerrendatik atera ditzakezu)**
- 2. Jardueraren data**
- 3. Jarduera-mota** (adibidez, tutoretzak eta ikasgelako batzarrak, eztabaidak, talde-lana, ikastetxetik kanpora egindako irteerak, talde-dinamikak olgetarako espazioetan, ikastetxeko jangela, eta abar).
- 4. Gaitasunetan hautemandako aldaketei buruzko oharra**
Oharra hartzen hasi aurretik, hartu kontuan **atributuen koadro xehatua**. Hautatutako atributuen osagaiei buruzko argibide zehatzagoak dituzu hor, eta, beraz, alderdi zehatzago eta fokalizatuagoi erreparatzen lagunduko dizute.
 - **Nori dagokio pasadizoa?** (izen-abizenen inzialak jaso ditzakezu, gero errazago gogoratzeko)
 - **Zer gaitasuni dagokio pasadizoa?**
 - **Gaitasun-maila jakin bat adierazten duen ebidentziaren deskribapena..**
 - **Pertsona horren edo pertsona-talde horren gaitasun-mailaren balorazioa.** Eskala: (Eskala: 1: baxua / 2: ertaina/ 3: handia / 4: bikaina)

PASADIZO-ADIBIDE BAT:

Nori dagokio pasadizoa? DBHko 3. mailako sei ikasleri.

(Hauek dira haien izenen inzialak: _____)

Zer gaitasuni dagokio pasadizoa? Eztabaidatzeko eta negoziatzeko gaitasunei.

Gaitasun-maila jakin bat adierazten duen ebidentziaren deskribapena. Ikasturtearen hasieran, gogor eztabaidatu zen nola banatu lan batzuetarako gaiak, talde batek baino gehiagok nahi baitzuen gai bera. Garrantziki jardun zuten, eta ez ziren gai izan denon gustukoa izango zen aukeraren bat aurkitzeko. Hala ere, bigarren seihilekoan, eta ikasgelako gatazkak nola kudeatu landu ondoren, zera negoziatu dute gai bera landu nahi zuten sei ikasleek: irakasgai honetan, talde batek aukeratuko du gaia eta lanak egin behar dituzten beste irakasgai batean, berriz, beste taldeak. Hitz egiteko txandak errespetatu dira, zenbait proposamen egin dituzte eta denentzako konponbiderik egokiena aukeratu da. Ez dira garrantziki aritu, eta ez diote eskatu bitartekari-lana egiteko irakasleari (beharrezkoa izan zen hori lehenengo seihilekoan).

Pertsona horren edo pertsona-talde horren gaitasun-mailaren balorazioa: 4

6. TRESNA

IKASLEEI INKESTA BANATZEA (AURRETESTA/TESTONDORENA)

Kaisser eta Ryan-en asmo-indizea oinarri harturik,¹¹ inkesta bat egin dugu, non ikasleei eskatzen baitzaie esateko, hierarkia bati jarraituz, zein diren helbururik garrantzitsuenak beren bizitzan eta zer ideiak kezkatzen dituzten gehien eta maizen. Jotzen da ideia horiek biltzen dituztela beren asmo eta helburuak, eta helburuok beren balio sakonekin loturik daudela.

Schwartz-en Balio Inkesta (SVS) ez erabiltzeko arrazoia da, batetik, edukiz askoz ere abstraktuagoa dela (balio-pareak konparatzen ditu) eta, bestetik, askoz ere luzeago eta konplexuagoa dela. Ez ditugu aurkitu inkesta hori nerabeekin edo hurrekin aplikatu izanaren adibideak. Gure ustez, askoz informazio baliotsuagoa eta zuzenagoa ematen du helburuetan (hala intrintsekoetan nola estrintsekoetan) gertatzen diren aldaketak neurtzeak, eta horregatik uste dugu inkesta tresna egokia dela nerabe eta hurrekin erabiltzeko.

Oharra: inkesta hezkuntza-maila bakoitzera egokitu behar da.

Inkestako galderen diseinua bat dator helburu posible bakoitzarekin. Hala dago jasoa koadro honetan:

Bizitzako helburua	Bizitzako helburu bakoitzari buruzko inkestako galdera
AFILIAZIOA	<ul style="list-style-type: none">Askotan pentsatzen dut izugarri gustatuko litzaidakeela benetan naizen bezala agertzea eta guraso eta lagunek naizen bezala onartzen nautela sentitzea.
KONFORMISMOA	<ul style="list-style-type: none">Jendeak nigandik espero duena egiten dut askotan, benetan zer nahi dudan kontuan hartu gabe, beldurra ematen didalako haien gustuko ez izatea edo haiek ni ez onartzea.
IRUDIA	<ul style="list-style-type: none">Denbora asko ematen dut besteen aurrean eman nahi dudan irudia zaintzen: ilea nik nahi dudan bezala izaten, janzten dudan arropa aukeratzen, gorputza zaintzen politago egoteko, altuagoa naizela edo meheago nagoela erakusten saiatzen, eta abar.
OSPEA	<ul style="list-style-type: none">Buruan gehien dabilkidan ideietako bat da neska/mutil ospetsua izan nahiko nukeela institutuan; besteen miresmena nahi nuke.
NORBERA ONARTZEA	<ul style="list-style-type: none">Konfiantza dut neure buruarengan; uste dut gai naizela sortzen zaidan edozein zailtasuni aurre egiteko. Oso ondo dakit zergatik egiten dudana egiten dudana.
KOMUNITATE-SENTIMENDUA	<ul style="list-style-type: none">Ilusio handia egiten dit nire denboraren eta indarraren zati bat erabiltzea egoera aldatzen saiatzeko, hala nire eskola, auzoa, herrialdea eta mundu osoa leku bidezkoagoak izan daitezen eta pertsonen eskubideak errespetatu daitezen.
ARRAKASTA EKONOMIKOA	<ul style="list-style-type: none">Etorkizunean soldata on bat ziurtatuko didaten unibertsitate-ikasketak egitea pentsatu dut; izan ere, behar adina diru izan nahi nuke nahi dudan guztia erosteko.

¹¹ Txosten honetan dago jasoa: *Finding Frames: New ways to engage the UK public in global poverty*. Erresuma Batua, Oxfam (2011). <http://www.kaidara.org/upload/251/BuscandoMarcos.pdf>

6. TRESNA

IKASLEENTZAKO INKESTA

ZER GAUZA DIRA GARRANTZITSUAK NIRETZAT?

Ordenatu itzazu, lehentasunaren arabera (1etik 7ra), burura maizen etortzen zaizkizun eta bizitzan zuretzat garrantzitsuen diren esaldiak, beheko koadrokoen artean aukeratuta (1: gehien axola zaizuna, eta 7: gutxien axola zaizuna).

	<ul style="list-style-type: none"> • Askotan pentsatzen dut izugarri gustatuko litzaidakeela benetan naizen bezala agertzea eta guraso eta lagunek naizen bezala onartzen nautela sentitzea.
	<ul style="list-style-type: none"> • Jendeak nigandik espero duena egiten dut askotan, benetan zer nahi dudan kontuan hartu gabe, beldurra ematen didalako haien gustuko ez izatea edo haiek ni ez onartzea.
	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora asko ematen dut besteen aurrean eman nahi dudan irudia zaintzen: ilea nik nahi dudan bezala izaten, janzten dudan arropa aukeratzeko, gorputza zaintzen polikago egiteko, altuagoa naizela edo meheago nagoela erakusten saiatzen, eta abar.
	<ul style="list-style-type: none"> • Buruan gehien dabilkidan ideietako bat da neska/mutil ospetsua izan nahiko nukeela institutuan; besteen miresmena nahi nuke.
	<ul style="list-style-type: none"> • Konfiantza dut neure buruarengan; uste dut gai naizela sortzen zaidan edozein zailtasuni aurre egiteko. Oso ondo dakit zergatik egiten dudan egiten dudana.
	<ul style="list-style-type: none"> • Ilusio handia egiten dit nire denboraren eta indarraren zati bat erabiltzea egoera aldatzen saiatzeko, hala nire eskola, auzoa, herrialdea eta mundu osoa leku bidezkoagoak izan daitezzen eta pertsonen eskubideak errespetatu daitezzen.
	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunean soldata on bat ziurtatuko didaten unibertsitate-ikasketak egitea pentsatu dut; izan ere, behar adina diru izan nahi nuke nahi dudan guztia erosteko.

Inkestaren emaitzak estatistikoki landu behar dira, ikusteko ea baden alde esanguratsurik praktika hasi aurreko eta ondorengo helburuen artean. Hala ere, adaketa-rik badago, ezin da esan praktikaren ondorioz gertatu denik; izan ere, lehen esan bezala, ikasleei eragin diezaikeen faktoreetako bat da praktika, baina ez bakarrik, inondik ere.

Aldaketak praktika jakin bati egozteko, kontrol- edo konparazio-talde bat (estatistikoki alderagarria) ezarri behar litzateke, aukera emango diguna konparazioak egiteko gainerako aldagaiak berdinduz edo minimizatuz. Azken hori egitea aukeratuz gero, komeni da lan hauetaz arduratuko den profesional-talde bat izatea: taldeak zehaztasun teknikoak aukeratzeko, inkestaren diseinua doitzeko eta emaitzak estatistikoki lantzeko.

7. TRESNA

ROL-JOKOA (AURRETESTA/TESTONDORENA)

Hau ere ez da tresna bat berez, baizik eta jarraibide-multzo bat irakasle bakoitzak aukera izan dezan tresna bat sortzeko berak ebaluatu nahi dituen atributuetan aplikatu ahal izateko.



“Dilema etiko” etan oinarritzen da teknika: fikziozko egoera bat aurkezten zaie ikasleei, landu nahi den atributu bat edo gehiago tartean hartzen dituen. Dilema, ikasleen adinari eta profilari egokitua, ahoz edo idatziz aurkeztuko zaie ikasleei.

Gero, taldetan banatzen dira, eta rol jakin bat esleitzen zaio talde bakoitzari (dilemako pertsonaia/aktoreen bati dagokiona), eta talde bakoitzeko kideei eskatzen zaie adosteko nola konponduko luketen arazoa beren rol edo ikuspegitik.

Azkenik, talde bakoitzeko ordezkari bati eskatzen zaio “antzezteko”, antzerki-emanalditxo baten bidez, hartutako erabakia. Konponbidea negoziatzeko prozesuan, taldekideen ikuspegi desberdinak eztabaidatuko dira, eta gaiari buruzko bakoitzaren ezagutzak eta, bereziki, gaitasun eta jarrerak/balioak azaleratuko dira.

Eszenak minutu batzuk iraun dezake, eta denbora emango zaie “aktoreei” libreki negoziatzen beren artean eta irtenbide bat adostu dezaten, ezer behartu gabe.

Jarduera bukatzeko, hausnarketa egingo da ikusteko nola baloratzen duten eszenan gertatutakoa, bakoitzaren rola gorabehera, eta galdera kritikoak egingo dira.

Gertatutako guztia idatziz jasoko du irakasleak, nola taldekako lana (zer posizio hartzen dute pertsonaiek?; zer ezagutza/gaitasun/jarrera dituzte?; nola adosten dute bakoitzaren pertsonaiak egin behar duena?) hala eszenaratzea eta ondorengo eztabaida. Guztia idatziz jasotzea eta, aldi berean, dinamika gidatzea zaila denez, beste aukera bat da beste irakasle bat gonbidatzea, behatzaile gisa parte har dezan, hala ohiko irakasleak gidari-lana egiteko aukera izateko.

8. TRESNA

AUTOBEHAKETA EDO KIDEEN BEHAKETA

Tresna hau norberak aplikatzen badu, gomendatzen dugu eskola bukatu bezain laster betetzea eta egiati jokatzea egin denaren eta egin den moduaren inguruan.

Fitxan **elementu metodologiko** guztiei buruzko argibideak xehatu direnez, praktikari zuzenezuzuzenean dagozkionak identifikatzea gomendatzen dugu, galdetegia ez dadin izan luzeegia eta ezin iritsizkoa.

Kideen behaketa erabili nahi bada, gomendatzen dugu behatzaileek orri huts bat hartzea abiapuntu, muga gehiegi egon ez daitezen. Dena dela, komenigarria da behaketaren alderdi orokor batzuk gidatzea. Esate baterako:

- Ikasgelaren, espazioaren banaketa
- Ikasgelan erabilitako metodologiak eta baliabideak (adib.: materialak, IKT, eta abar.)
- Ikuspegi sozioafektiboa, irakasle-ikasleen protagonismo-maila
- Arazoetan oinarritutako lanketa kritikoa
- Tokiko errealitatearekiko eta errealitate globalarekiko lotura (adibidez, ikasgelako aniztasun-motak, nola lan egin aniztasun hori kontuan hartuz, eta abar.)
- Ikasleen erantzunkidetasuna sustatzea
- Ekintzak bideratzea
- Jokabideak eta jarrerak: errespetua, entzute aktiboa, eta abar.
- Behaketan hautemandako beste alderdi batzuk, nahiz eta ez egon zerrendan jasota

Atalok kontuan hartuz behaketa egiten duen pertsonak hartzen duen ohar-sorta material baliozkoa da, eta HGHko praktika aztertzeke behar adinakoa; dena dela, egokiena litzateke ohar desegituratuok fitxa xehera pasatzea. Izan ere, zenbait adierazle biltzen ditu fitxak, eta printzipio bakoitzaren edukia bakantzen eta egokitzen laguntzen du. Halaber, fitxa lehenbailehen betetzea gomendatzen dugu, praktikarekin zuzenean lotutako alderdiak kendu edo aukeratu ondoren.

ARAZOETAN OINARRITUTAKO LANKETA KRITIKOA

ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Ikasle eta irakasleek aztergai den fenomenoarekiko dituzten estereotipoak azaleratzea.	<ul style="list-style-type: none"> • badaki zer iritzi duten ikasleek aztertu beharreko fenomenoari buruz? • lagundu du ikasleen iritziek islatzen dituzten aurreiritzi edo ideiak "esplizitu" bihurtzen edo azaleratzen? • azaldu du zer pertzepzio dituen berak? 		
Aztertu beharreko fenomenoaren ikuspegi historikotik aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> • animatu ditu ikasleak ikustera ea fenomeno hori beste era batera ikusi den beste garai batzuetan? • lagundu die ikasleei ulertzen ea pertzepzio horiek garai eta espazio historiko jakin bati lotuak dauden edo nagusi den ideologia baten bidez azaltzen diren? • eskaini die ikasleei beste ikuspegi bat (historikoa edo egoera bati lotua) beste ikusmolde bat "sustatzeko"? • lagundu du fenomenoaren ikuspegi global batetik aztertzen? 		

ARAZOETAN OINARRITUTAKO LANKETA KRITIKOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Informazio kontrastatu eta fidagarria biltzea (ez neutrala, baizik eta argumentatua eta joeren analisi baten bidez poszionatua).	<ul style="list-style-type: none"> • lagundu du zalantzan jartzen, kritikoki, ikasleek erabiltzen dituzten informazio-“iturriak”? (nork ematen duen informazioa, zer botere-egoeratan dagoen edo zer interes dituen informazioa ematen duenak, informazioa fidagarria den eta datuetan oinarritua dagoen, eta abar.) • animatu ditu ikasleak beste datu batzuk bilatzera aurrekoekin kontrastatzeko? • animatu ditu ikasleak beren iritzia osatzera argumentu desberdinen kontrastea oinarri hartuta? 		
Aztergai dugun fenomenoaren sakon analizatzea, gogoan izanik kausa-aniztasuna eta fenomenoaren dimentsio bakoitzaren arteko harremanak.	<ul style="list-style-type: none"> • beste eremu batzuetatik aurkeztu du fenomenoaren edo hori aztertzerako animatu ditu ikasleak? • bilatu ditu edo lagundu die ikasleei arlo horien eta fenomenoaren arteko harremanak bilatzen planteamendu holistiko bat izateko? • eskaini ditu maila desberdineko kausak eta ondorioak bereizteko elementu edo estrategiak? • animatu ditu ikasleak edo behar adina informazio eman die arazoa (haren kausak eta ondorioak) ikuspegi orokor batean kokatzeko? 		

ARAZOETAN OINARRITUTAKO LANKETA KRITIKOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Aztertu beharreko fenomenoaren inguruko posizio desberdinen arteko kontraesanak hautematea	<ul style="list-style-type: none"> lagundu die ikasleei fenomenoari buruzko diskurtsoen arteko kontraesanak identifikatzen? 		
Aztertu nahi dugun fenomenoaren inguruan hautemandako kontraesanei buruzko azalpen onargarriak ematea.	<ul style="list-style-type: none"> eskaini ditu elementuak kontraesanak azaltzeko, ikasleak gero gai izan daitezzen beren ondorioak ateratzeko? 		

ELKARRIZKETA BIDEZKO IKASKUNTZA. GALDERAREN PEDAGOGIA

ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Informazioa ematea, irtenbide itxi eta azalpen bukatuak eman gabe.	<ul style="list-style-type: none"> ikasleari aztertu beharreko fenomenoaren inguruan azalpen onargarriak emateko aukera emango dion informazio-prozesu nabartu bat izan du abiapuntu? parte-hartzaileen arteko elkarrizketa eta iritziak entzutea bultzatu du "ikuspegi bakarrak" saihesteko? 		
Fungabetasun eta kontraesanak ardatz hartu eta hazieran sakontzea, ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan interpelatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ondo gidatu ditu ikasleak haien edo inplikaturako beste aktore batzuen posizioen koherentzia-inkoherentzia aztertzen laguntzeko? bulztatu du elkarrizketa kolektiboa beste ikuspegi batzuk integratzeko eta norberaren posizioa aldatzeko mekanismo gisa? 		

IKUSPEGI SOZIO-AFEKTIBOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Ikasgelan errespetu-jarrerak hartzea eta sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> sustatu du errespetua ikasgela barruan, hezitzaileak elkarrizketa bultzatzen duen jarrera ireki bat oinarri izanik? parte-hartzaile guztien adierazpen-askatasuna eta denen arteko errespetua bultzatu ditu? 		
Taldeko gainerako kideengan zaintzaren eta laguntasunaren kultura sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> lan kooperatiboa lehenetsi du lan lehiakorraren aldean? indartu dira ikasgelan laguntasun-jarrerak? 		
Ikasgelako lanari lotutako afektua txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> landu ditu aztertutako fenomenoari lotuta sortutako afektu eta emozioak? eta taldearen egunerokotasunean? 		
Ikasgelako gatazkak kudeatzea	<ul style="list-style-type: none"> eskaini dira tresna edo teknika egokiak gatazkak beste modu batera konpontzeko? aprobetxatu da gatazka arazo edo gai baten inguruko interes eta emozioak azaleratzeko aukera gisa? 		

ESPERIENTZIAN ETA EGOERETAN OINARRITUTAKOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Ikasgelako kide guztiek fenomenoari lotuta dituzten esperientzietatik abiatzea haien gainean lan egiteko eta azterketa kritikoa eginez desegitea.	<ul style="list-style-type: none"> sustatu du ikasgelan aztertutako fenomenoari buruz ikasleen aldez aurreko esperientziak partekatzea? erlazionatu du gaia taldekideek (edo taldekide batzuek) maila pertsonalean, familian edo taldean izandako esperientziekin? 		
Ikasleei informazioa ematea beren ikaskuntza-prozesuari buruzko erabakiak har ditzaten (beren ikaskuntza-prozesuko parte-hartzaile bihurtzea, erantzunkide izan baino lehenagoko fase gisa).	<ul style="list-style-type: none"> sartu ditu ikasgelan parte hartzeko eta erabakitzeko mekanismoak, fenomenoaz aztertzeari lotuta erantzunkidetasuna bultzatuko dutenak? 		
Aztertu beharreko fenomenoari lotutako emozioak eragingo dituzten egoerak sortzea ikasgelan. Erreakzio horien arrazoiak azalera, haien inguruan hausnartzea, eta lantzea. Adibidez, aukera ematen du arazo jakin batek eragindako haserretik aurrera egiteko eta norberaren portaerak aldatzeko motibazio bihurtzeko.	<ul style="list-style-type: none"> eman du informazioa (kasuak, bideoak, eta abar) edo sustatu ditu rol-jokoa eta beste teknika batzuk aztertutako fenomenoak eragiten dituen emozioak lantzeko? 		

LAN KOOPERATIBOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA*	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Lan kooperatiboa sustatzea, haren bidez adosteko zer alderdi landu nahi diren eta taldearen posiziotik ekiteko zer aukera dauden.	<ul style="list-style-type: none"> lan kooperatiboa edo proiektu bidezko lana sustatu ditu? 		

IKASKUNTZA ESANGURATSUA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Aztertu beharreko fenomenoek eguneroko errealitatearekin dituzten loturak aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> proposatu du fenomenoaren hurbileko errealitatea kontuan hartuta aztertzea? 		
Ikasleei hausnarketa eginaraztea honen inguruan: zer gaitasun duten aztertutako fenomenoari lotutako aldaketak eragiteko beren eguneroko errealitatean.	<ul style="list-style-type: none"> bultzatu ditu bere egunerokoan fenomenoari lotutako aldaketak egiteko duen gaitasunari buruzko hausnarketak? planteatu du nola izan dezaketen aldaketok eragin globala? 		

EDUKIEN LANKETA ETIKOA. JUSTIZIA SOZIALERAKO ORIENTAZIOA			
ZER BALORATZEN DEN	IRAKASLEAK... (balorazioa egitean kontuan hartzeko elementu batzuk)	BALORAZIO- ESKALA *	ADIBIDE ARGIGARRIA (Balorazioa indartzen du, fenomenoarekin loturiko diskurtso, metodologia edo jarreraren bat jasoz)
Justizia sozialean oinarritutako eraldaketa-posizionamendu batetik aztertzea landutako fenomenoak.	<ul style="list-style-type: none"> justizia sozialaren erreferentzia etiko batetik bideratu du ikaskuntza-prozesua osoa? 		

(*) Erabat=2 | Erdizka=1 | Ez da kontuan hartu praktikan=0

9. TRESNA

TESTUINGURU-ALDAKETEN EGUNKARIA

Hautemandako aldaketak praktika honek eragin dituen ala ez jakiteko, kontakizunaren tresna (idazketa librea) erantsi dugu sistemari. Hau da kontakizuna gidatuko duen galdera: *bada beste gertaerarik agian aldaketa eragingo ziona ebaluatzen ari garen garaian? ; testuinguruan bada gertaeraren bat (zure praktikaz aparte) beharbada ikasleen artean hautemandako aldaketak sustatu edo oztopatu zituen?*

Adibide batzuk: beste irakasgai batzuk, sentsibilizazio-jardunaldiak; parte hartzeko beste ikaskuntza-dinamika batzuk; auzoan edo familian gertatutako aldaketaren bat, errealitatearen bat nabarmendu diena; komunikabideetan azaldutako berriren bat, eragin egin diena; eta abar.

Inspirazio-iturri gisa, ikasleen atributu-aldaketarekin (sustatzeko edo moteltzeko) lotuta egon daitezkeen **testuinguruko elementuak** berrirakur ditzakezu.

10. TRESNA

HGH-KO ZURE PRAKTIKARI BURUZKO TAILERRA IKASLEEKIN

1. atala: Bakarkako hausnarketa anonimoa, idatziz

Proposatu ikasleei galdera ireki eta itxiak dituen hausnarketa-fitxa bat betetzea, zure praktikari buruzko eduki hau duena: *[ausnartzeko fitxa anonimoa, hurrengo orrian]*.

2. atala: Taldearen hausnarketa, erantsitako emaitzak kontuan harturik

Erantsitako erantzunak jasotzen dituen fitxatik zer emaitza atera diren azalduko du irakasleak ikasgelan.

Gero, zatirik eskasenetarako soluzio batzuk proposatuko dizkie ikasleei, eta haiekin negoziatuko ditu, iritzia eman dezaten, beren iritzia kontuan hartzen dela senti dezaten eta soluzioak bere egin ditzaten. Bideragarria ez den soluzioren bat proposatzen badute ikasleek, zergatik ez den bideragarria azalduko zaie, eta soluzioak adostu ahal izateko alternatibak eskainiko zaizkie.

Hala, helburu bikoitza lortuko luke tailerrak: irakasleei eskolak hobetzen laguntzea eta ikasleak parte hartzera, komunikatzera eta soluzioak adostera bultzatzea. Gaitasun horiek guztiak sustatu nahi dira HGHaren bidez.



HAUSNARKETA-FITXA ANONIMOA

Fitxa honek balio du zure irakasleak jakin dezan zer gauza gustatzen zaizkizun gehien bere eskoletatik (ZORIONAK), zer gauza ez zaizkizun hainbeste gustatzen (KRITIKA KONSTRUKTIBOA) eta zer egingo zenukeen gustatzen ez zaizkizun gauzak hobetzeko (PROPOSAMENA).

Gogoan izan: garrantzitsua da fitxa ganoraz betetzea, nahiz eta ez duzun izena jarri beharrik. Eskolei buruz duzun iritzia jakin nahi du irakasleak, uste baitu oso garrantzitsua dela zure iritzia, behar dena aldatzeko zure proposamen zentzuzkoak oinarri harturik.

Koadroa bete aurretik, pentsatu nolakoak diren zure irakaslearen eskolak.

Pentsatu galderotan, eta markatu X batez erantzuna, kontuan hartuz hori ASKOTAN / BATZUETAN / INOIZ EZ egiten duen. **ZURE IRAKASLEAK...**



10. TRESNA

ZURE IRAKASLEAK...	ASKOTAN	BATZUETAN	INOIZ EZ
1. Zure herrialdeari, hiriari, auzoari buruzko gauza interesgarriak kontatzen dizkizu? Beste herrialde batzuei buruz hitz egiten dizu? Nahiko zenuke hori egitea?			
2. Ikusarazten dizu hemen (zure hirian eta zure auzoan) eta orain egiten ditugun zenbait gauzak aldaketak eragiten dituztela beste herrialde batzuetan? Ingurumenean, adibidez?			
3. Ikaskideen iritziei erreparatzeko esaten dizu?			
4. Gaiarekin loturiko gaurkotasunezko gaiak proposatzen dizkzu ikasgelan eztabaidatzeko?			
5. Irakasgaiko zer gaietan sakondu nahiko zenukeen erabakitzen laguntzen dizu batzuetan?			
6. Galdetzen dizu zure ustez zein izan daitezkeen gai jakin bati buruzko soluzioak berak soluzio itxi bat proposatu ordez?			
7. Sekula pentsatu ez dituzun gauzen inguruan pentsatzera bultzatzen zaitu?			

 Irakaslea ZORIONTZEN dut honengatik:	 KRITIKA KONSTRUKTIBOA egiten diot irakasleari honengatik:	 Hau PROPOSATZEN DIOT irakasleari:

11. TRESNA

KAIDARAKO MATERIALEI BURUZKO ONLINEKO INKESTA

Zure ikastetxe edo ikasgelan egindako praktika hobetzeko proposatzen ditugun galdera batzuk jaso ditugu.

Ikasleen profilari buruzko aldez aurreko informazioa:

• Hezkuntza-maila:

• Ikasgelako ikasle-kopurua:

• Mutilen % / Nesken %:

• Interesgarritzat jotzen dituzun beste datu batzuk:

1. Praktikaren bidez sortu nahi zenituen ezagutza, gaitasun eta jarreraren artetik, zein lortu dituzu, eta zer neurritan? [Atributuak neurtzeko tresna erabili baduzu bakarrik erantzun]

	EMAITZEN BALORAZIOA			
Aipatu espero zenituen atributuak	Ezer ez 0	Zerbait 1	Nahiko 2	Asko 3

2. Bada atributuren bat lantzea espero ez zenuena baina, zure ustez, aldatu egin dena?

	EMAITZEN BALORAZIOA			
Aipatu espero zenituen atributuak	Ezer ez 0	Zerbait 1	Nahiko 2	Asko 3



11. TRESNA

3. Gaia landu ondoren eta ikasleek gaiaren inguruan erakutsitako interesa ikusi ondoren, gaurkotasunezko gai garrantzitsua da, zure ustez, HGHari begira?

Bai Ez

4. Inoiz landua zenuen gai hau beste baliabide batzuen bidez edo beste ikuspegi batzuetatik?

Bai Ez

5. Loturarik ikusi duzu lehen landutakoaren eta praktika honen artean?

Bai Ez

6. Proposatutako metodologia egokiena da zure ustez?

Bai Ez

EZ erantzun baduzu, zer aldaketa proposatuko zenituzke?

7. Beste elementuren bat erantsi duzu, zure ustez praktika aberastu duena?

Bai Ez

BAI erantzun baduzu, zein?

12. TRESNA

ZURE EBALUAZIO SISTEMIKOAREN EMAITZAK ETA IKASITAKOAK PARTEKATZEKO AZKEN FITXA

(hau da kaidaran argitaratuko den fitxa)

Aplikatu dituzun tresnen bidez jasotako datuak eta ateratako ondorioak kontuan hartuz, bete ezazu fitxa hau zure azken hausnarketak jasotzeko. Fitxa honi lotuta, eskema bat daukazu, baliagarri izan dakizukeena elementuen arteko erlazioa ikusteko, eta koadro bat, edukiarekiko erreferentziak dituen eta balio dezakeena guk proposatutako tresnarik aplikatu ez duzun atalak betetzeko.

Praktika egin den ikastetxea:

Praktikaren izena:

Noiz egin den praktika:

Ikasleen hezkuntza-maila eta profila:

Egindako jardueren laburpena:

Praktika prestatzen eta egiten parte hartu duten pertsonak eta prozesuak (beste irakasle batzuek parte hartu duten, beste erakunde batzuek lagundu duten, bileraren bat egin den aurretik edo beste zerbait egin den prestatzeko, eta abar):

Baliabide edo material lagungarriak edo erreferentziazkoak:

Harremanetarako pertsona:

Harremanetarako datuak (helbide elektronikoa):

12. TRESNA

ZER EGIN NAHI NUEN? [3. tresnan har dezakezu oinarri]

Zer atributu landu nahi zenituen? (zergatik landu nahi zenituen ere azaldu dezakezu)

Zer esango zenuke orain hasieran zenuen asmoaz?

ZER ETA NOLA EGIN NUEN? [8. eta 10. tresnen emaitzak har ditzakezu oinarri]

HGHko zer gai landu zenituen zuzenean edo zeharka?

Zer printzipio pedagogiko erabili nituen, eta zer balorazio egiten dut?

Bada hurrengo jardueretarako hobetu beharko nukeen alderdirik?

ZER ALDATU DA?

Bada ebidentziarik ikasleekin landutako herritartasun globaleko atributuak sendotu egin direla diotenik? Zer neurritan? [4. , 5., 6. eta 7. tresnen emaitzak har ditzakezu oinarri]

Zure ustez, praktikak eragin egin dio egiturari edo aldaketak eragin ditzake (ikastetxeko dinamiketan, beste irakasle batzuegan, zuzendaritza-taldean eta abar)? [Ideiak hartzeko, konparatu hasierako AMIA (2. tresna) gaur egungo egoerarekin]

Praktikaren eta haren berehalako emaitzen bidez (aldaketak ikasleengan eta egiturari) testuinguru hurbilekoan aldaketak eragin daitezkeela uste duzu? Nola? [Hatu ideiak hasierako AMIAtik (2. tresna) eta 9. tresnatik]

12. TRESNA

ZER FAKTOREK IZAN DUTE ERAGINA ZURE USTEZ? [2. ETA 9. TRESNAK]

Zure ustez ikastetxeko zer egitura izan dira lagungarri edo oztopo aldaketak lortzeko edo ez lortzeko?

Zure ustez testuinguruko elementuren batek areagotu edo murriztu egin ditu praktikak eragindako aldaketak?

Zure ustez aurrerantzean nola aprobeztatu ditzakezu hobeto egituraren eta testuinguruaren aukerak/indarguneak? Edo nola egin diezaiekezu aurre haren ahuleziei/galgei?

ZER IKASI DUT?

Nahiz eta galdera-atal bakoitzean ondorioak atera dituzun etorkizunari begira, komeni da hemen ikuspegi integratuago batez jasotzea zer hobetu/indartu nahi duzun hurrengo saioetarako.

Erronkak edo hobekuntzak, HGHko printzipio pedagogikoak aplikatzeko moduaren eta/edo gaiak lantzeko moduaren arabera.


Erronkak edo hobekuntzak, zure ikastetxeko egiturako edo testuinguruko elementu laguntzaileak aprobeztatzeko edo oztopoei aurre egiteko moduaren arabera.

12. TRESNA

ERANSKINA

Gogoan izan azterketa egiteko proposatu dizugun eskema; han, ez da nabarmentzen lau dimentsioetako bakoitza bakarka, baizik eta nola eragiten dioten batak besteari.

Jarraian duzun eskeman, ikus dezakezu zer tresnak lagunduko dizuten elementu bakoitza ebaluatzen, eta non duzun gai bakoitzaren esparru teorikoa.



GEHIAGO JAKITEKO



ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Boni, A. (2006). "La educación universitaria: ¿Hacia el desarrollo humano?", A. Boni eta A. Pérez-Foguet (ed.), *Construir la ciudadanía global desde la universidad*. Bartzelona: Intermón Oxfam / ISF.

Boni, A., Hoffman-Pinilla, A. eta Sow, J. (2012) "Educatando para la Ciudadanía Global: Una experiencia de investigación cooperativa entre docentes y profesionales de las ONGD". *Estudios sobre educación*, 23, 63–81.

Boni, A. eta León, R. (2013). "Educación para la Ciudadanía Global: Una estrategia imprescindible para la justicia social", Intermón Oxfam (ed.). *La Realidad de la Ayuda 2012*. Bartzelona: Intermón Oxfam. <http://www.oxfamintermon.org/sites/default/files/documentos/files/laRealidadDeLaAyuda2012cap5.pdf>

CONCORD/DEEP (2011) "Development needs citizens: The place of development education and awareness raising", CONCORD/DEEP *The Development Discourse*. Brusela: CONCORD/ DEEP.

CONGDE (2012). *Contribuciones de la Coordinadora de ONGD al IVº Plan Director 2013–16*. Madril: CONGDE.

De Paz, D. (2007). *Escuelas y educación para la ciudadanía global. Una mirada transformadora*. Bartzelona: Intermón Oxfam.

European Congress on Global Education (2012). "Concept paper". Online. www.gecongress2012.org/images/2012_GECongress_ConceptPaper_FINAL.pdf (kontsulta: 2013ko urtarrilaren 28a).

Funnell, S. eta Rogers, P. (2011). *Purposeful Program Theory. Effective use of theories of change and logic models*. San Francisco, CA: Jossey Bass.

Hartmeyer, H. eta Löber, P. (2008). "Evaluating global and development education in a number of European countries: Some case studies", E. O'Loughlin eta L. Wegimont (eds.), *Quality in Global Education. An overview of policy and practice*. Amsterdam: GENE.

Ligero, J. (2011). "Dos métodos de evaluación: Criterios y teoría del programa". *Documento de Trabajo. CECOD seriea*. 15/2011. Madril: CECOD.

Merrifield, J. (2002). *Learning Citizenship*. IDS working paper. 158. zk. Brighton: Institute of Development Studies.

O'Loughlin, E. eta Wegimont, L. (ed.) (2008). *Quality in Global Education: An overview of policy and practice*. Amsterdam: GENE.

Roper, L. (2002). "Achieving successful academic–practitioner research collaborations". *Development in Practice*, 3 eta 4, 338–45

Roper, L., Pettit, J. eta Eade, D. (ed.) (2003). *Development and the Learning Organisation*. Oxford: Oxfam.

Temple, P. (2005). The EFQM exce

HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZIKETARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO

HERRITARTASUN GLOBALA BILDUMA

Herritartasun globala korrante sozial bat da, herritartasun-eredu berri bat sustatzen duena, mundu bidezkoago eta jasangarriago bat lortzearen alde aktiboki konprometitua. Ikuspuntu horretatik, herritartasun globalerako heziketak hauen alde egiten du: aniztasuna errespetatzea eta balioestea, ingurumenaren defentsa, kontsumo arduratsua eta banakoen eta gizartearen giza eskubideak errespetatzea.

Testuinguru horretan, Oxfam Intermónen Herritartasun Globalerako Heziketa bildumaren helburua da elkarrizketa, parte-hartzea, erantzunkidetasuna eta gure eskola eta gizartea eraldatzeko konpromisoa sustatzen duten tresna teoriko eta praktikoak ematea.

Bi lerro osagarriren bidez eskaintzen ditu argitalpenak: *Saberes* eta *Propuestas*. *Saberes* ek herritartasun globalari lotutako ekarpenak eta alternatiba teorikoak dituzten testuak jasotzen ditu. *Propuestas*, berriz, herritartasun globala eraikitzekeko estrategiak barneratzen eta praktikan jartzen laguntzeko dibulgazio-eskuliburu pedagogikoen multzo bat da.

ARGITALPENAK

De Paz Abril, Desiderio (2007): Escuelas y educación para la ciudadanía global. Una mirada transformadora

Gaur egun, hezkuntzari buruzko eztabaida politikoak herritartasuna du ardatz. Alde bateko eta besteko argudio ugariaren artean, irakasteko ardura dugunok jarraitzen dugu geure buruari galdetzen nolako herritarrak ari garen eraikitzen eskolan. Bizitzarako hezi nahi ditugu ikasleak, ezer arrotza egingo ez zaigun mundu baterako. Eskolari buruzko hausnarketa egitera behartzen gaitu horrek. Hezkuntza-eredu humanista eta global berri baten beharra abiapuntu harturik, liburu honek begirada kosmopolita, askatzaile, kritiko, partizipatibo, demokratiko, eraikitzaile, gogoeta-eragile, elkarrizketa-bultzatzaile eta, batez ere, eraldatzaile bat ematen digu.

Eskola-jardueraren diagnostiko bat, behar batzuk eta antolakuntza-printzipio batzuk planteatzen dizkigu liburuak, zorrotz, didaktikoki eta ulertzeko moduan; hala, ezinbesteko irakurketa bihurtzen da hezitzaileentzat, eta oso adierazgarria seme-alaben eskola-ereduarekin arduratzen diren gurasoentzat. Liburu honek argudioak ematen dizkigu mundu bidezkoago bat lortzeko baliabiderik garrantzitsuena heziketa dela uste dugunoi.

<http://www.kaidara.org/es/Escuelas-y-educacion-para-la-ciudadania-global;-una-mirada-transformadora>

Intermón Oxfam (2008): Pistas para cambiar la escuela

Gizateriarekin eta planetarekin arduratsua den herritartasun globalerako korrante bat eraikitzeke, ezinbestekoa da oinarriak eskolan finkatzea. Ikasgeletan egunero ideia hori sustatzen saiatzen garenok badakigu ez dela erraza. Baina bizileku dugun munduak itxaron ezin duten desafioak jartzen dizkigu, hala nola pobrezia eta klima-aldaketa. Gaur egungo hezkuntza-sistemak erantzun gutxi ematen ditu. Hezkuntza-eredu berri bat behar dugu: humanista, elkarriketa eta elkarbizitza oinarri dituena, eskola-komunitatea eraikiko duena, justiziagatik arduratua, eta ingurunera eta mundura irekia. Erronka handia da "izateko" eta eraldatzeko hezkuntza bat eraikitzea.

Pistas para cambiar la escuela argitalpenak *Escuelas y educación para la ciudadanía global* liburuko edukiak biltzen ditu. Desiderio de Paz Abrilen *Una mirada transformadora*; urte asko eman ditu de Paz Abrilek herritartasun global baterako heziketaren proposamena luze eta zehaztasunez finkatzen. Liburuaren xedea ez da sinplifikatzea, baizik eta hurbilketa bat egitea ideia teorikoetara, praktikari buruzko hausnarketara eta talde-lanera, eta, beharbada, obra luzea irakurtzeko gogoia piztea.

Atal guztiek galdera batzuk dituzte, irakurlea autoebaluazio bat egitera gonbidatzen dutenak. Halaber, hausnarketa sakonagoko prozesuak inspira ditzake, banaka nahiz taldeka.

http://www.kaidara.org/es/Pistas-para-cambiar-la-_escuela

Caballero, Araceli (2008): Protozoos insumisos

Hona hemen benetako opari bat; ez opari kontsumista bat, jakina. Bikoitza da gainera: edukiak irakatsi nahi dizkigu, eta adierazteko moduarekin gozarazi. Eta ez liburu atsegin bat delako; kezka-sortzailea dela esango genuke. Baina maitasun handiz idatzia dago pertsonen, gizartearen eta naturaren alde.

Hausnarketa kritikoez oinarritzko baieztapen bat dute abiapuntu: hiria merkatu bihurtu da, eta hiritarrak, kontsumitzaile. Ikuspegi horretatik, ugariak dira kontsumo partekatua bideratzeko proposamenak; giza gaitasunak indartzen dituzte, eta arduratsuak dira bai gizarteari dagokionez, bai jasangarritasunari dagokionez.

Gaur egungo errealitateak bide berrien vademecum bihurtzen du testua —zeina bestela ere erabilgarria baita—; hain zuzen ere, arlo honetan, bide horiek urratu behar lirateke, krisiak —aukera ere bada— fruitu eman dezan eta ekonomia berezko duena bilaka dadin: gizateria osoaren beharrak betetzeko sistema.

Halako saiakera asko egin beharko dira, kontsumoan ez ezik, baita ekoizpenean, banaketan, finantzetan, sare publikoan, ikastetxeetan, komunikabideetan eta balorazio etikoetan ere, **protozoo intsumiso** asko azaltzeko.

(Arcadi Oliveresen hitzaurretik)

<http://www.kaidara.org/es/Protozoos-insumisos.-Ciudadania-y-consumo-responsable>

Barahona, R., Gratacós, J. eta Quintana, G. (2013): Centros educativos transformadores: ciudadanía global y transformación social

Herritartasun globalerako hezitzaileen sarean eta batzorde estrategikoan garatutako ekintza-ikerketak partizipatiboko prozesua du abiapuntu argitalpen honek. Galdera honek gidatzen du prozesua: zer praktika izan behar ditu ikastetxe batek herritartasun globalari jarraikiz aldaketa soziala eragiteko?

Sarearen eta Intermón Oxfamen herritartasun globalerako hezkuntzaren ereduan oinarrituta, ideal eraldatzaile horrekin erabat edo partzialki bat datozen beste eredu batzuk biltzen eta elkarrizketa kritiko moduan jasotzen ditu argitalpenak, eta ibilbide eraldatzaile zehatzak ematen ditu, hiru mailako praktikatan oinarrituta: irakaskuntza-praktikak (irakaskuntza-ikaskuntza arloa), antolakuntzakoak (antolakuntza- eta harreman-arloa) eta politikoak (ingurunearen eta eraldaketa sozialaren arloa).

Gure ustez, "ikastetxe eraldatzaile bat" da hezitzaileen eta zuzendaritza-taldearen jardunaren bidez herritartasun globalerako heziketaren eredu bat sustatzen duena, batzuetan guraso-elkartearen, ikasleen edo testuinguru sozialaren beraren laguntza ere baduena aipatutako arloren batean edo gehiagotan. Ikastetxe eraldatzaile bat izatea ez da egoera ideal betiko bat lortzea, baizik eta maila desberdinetan prozesu eraldatzaileak sortzeko bidean aurrera egitea.

Atal guztiek galdera batzuk dituzte, irakurlea autoebaluazio bat egitera gonbidatzen dutenak. Halaber, hausnarketa sakonagoko prozesuak inspira ditzake, banaka nahiz taldeka.

<http://www.kaidara.org/es/centros-educativos-transformadores>

PLANIFIKATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK

HERRITARTASUN
GLOBALERAKO PRAKTIKAK



red
xatxa
reda
sarea

educadores
y educadoras
para una ciudadanía global

BABESLEAK:

